

IKASTETXEEN KANPO ETA BARNE EBALUAZIOETARAKO ORIENTABIDEAK

Zerbitzuak Ikuskatzeko
eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Titulua: Ikastetxeen kanpo eta barne ebaluazioetarako orientabideak
Testua: Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua
Copyright: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua
1. argitaraldia 2006

Aurreinprimaketa: Pretexto, Estafeta 60

Azala: Asís Bastida

Inprimaketa: Ona Industria Gráfica

L.G.: NA 3.157-2006

Sarrera	7
1. Irakurriaren ulermenaren ebaluazioa	9
1.1. Ebaluazioan sartutako irakurketa prozesuak	9
1.2. Ebaluazioan sartutako testu motak	12
1.3. Irakurtzeko gaitasunaren balioespena	14
2. Testu idatzien ekoizpenaren ebaluazioa	15
2.1. Ebaluazio arloaren definizioa	15
2.2. Probaren ezaugarriak	15
2.3. Testu ekoizpenaren balioespena	19
2.4. Egin daitezkeen lan ereduak	21
3. Problemen ebazpenaren ebaluazioa	23
3.1. Ebaluazio arloaren definizioa	23
3.2. Probaren ezaugarriak	25
3.3. Problemak ebazteko gaitasunaren balioespena	26
4. Azturen, balioen eta jarrerren ebaluazioa	27
I. eranskina	29
Ulermenezko irakurketa. Galdera ereduak (Euskara)	29
Lehen zikloa	30
Bigarren zikloa	35
Hirugarren zikloa	46
II. eranskina	63
Modelos de pruebas de lectura comprensiva (Lengua Castellana)	63
Segundo ciclo	64
Tercer ciclo	77

III. eranskina	95
Testu ekoizpenerako lan ereduak	95
Lehen zikloa	96
Bigarren zikloa	99
Hirugarren zikloa	102
IV. eranskina	111
Problema ereduak	111
Lehen zikloa	112
Bigarren zikloa	117
Hirugarren zikloa	122

Dokumentu honetan bildu da 2006-2007 ikasturtearen bukaeran Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan eginen den kanpo ebaluazioaren esparrua. Esparru horrek balioko du behin betiko probak diseinatzeko, eta hobekuntza planaren barnean zikloaren bukaeran ezartzen diren probak prestatzeko ere erabiltzen ahalko da. Ikastetxeak beregainak dira proba horiek euren irizpide eta ikusmoldeei jarraikiz prestatzeko. Hala izan behar du gainera. Lan hau eskura izatea oso lagungarria gerta daiteke proba horiek doitu ahal izateko. Nolanahi ere, ebaluazio hauen esparrua ezagutzera eman ahal izatea aukera ona izan daiteke norberaren ebaluazioen gainean hausnarketa egiteko.

Horretaz gainera, lan honek balio handiko informazioa ematen du hobekuntza plana doitu ahal izateko. Bi ikusmoldek bete dezakete helburu hori. Batetik, ikastetxeak berak iazko ikasturtearen bukaeran egin zuen hobekuntza planaren ebaluazioaren emaitzek eta, bestetik, kanpo ebaluazioaren ikusmoldeak. Bi ikusmolde horiek argia eginen dute ikastetxean hobekuntza lerroei lehentasuna emateko eta eskolaren errealitateari eta beharrei egokituriko jarduerak bultzatzeko. Etengabeko hobekuntza beharrezkoa da eta, egia esanik, jadanik ikastetxeko eguneroko lanean txertaturik dago. Ikusmolde horretan, kanpo zein barne ebaluazioa hobekuntzarako ezinbesteko lantresna da.

Argitalpen honek bi atal ditu, bata bestetik bereiziak. Lau kapitulutan ebaluazioaren esparrua deskribatzen da. Horretaz gainera, eranskin zabal batean galdera ereduak sartu dira, hots, kanpo probetan jarriko diren antzekoak. Espero dugu biak ala biak interesgarriak eta praktikoak izatea, ikusmoldea eta ikusmolde hori egokitzeko irizpideak ezagutzearren.

Esparrua deskribatzeko kapituluetan ebaluazio proben ezaugarriak eta proba horiek diseinatzeko irizpideak deskribatzen dira. Lehen atalean esaten da irakurriaren ulermena nola ebaluatu behar den, irakurketa prozesuak eta ebaluazioan sartuko diren testuak nolakoak izanen diren eta zein diren irakurtzeko gaitasuna balioesteko irizpideak. Kapitulu eta horri dagokion eranskina arretaz irakurritz gero, konturatuko gara ikusmoldea bateragarria dela irakurketaren gainean nazioartean egiten diren ebaluazioen planteamenduekin, hau da, PISArekin eta PIRLSekin.

Beharbada, bigarren kapitulu ere interesgarria izaten ahal da, testuen ekoizpena nola ebaluatuko den deskribatzen baita. Deskribatu nahi den ikusmolde honetan planteamendu hau gaituztat jo da: “idazlan libre” bat egin eta osotasunean zuzentzea (zuzentzaileak idazlan hori irakurrita izan duen uste orokorraren arabera). Aitzitik, kontuan hartu dira testu idatziak ekoizteko didaktikaren planteamendu

berriak eta jo nahi izan da planteamendu analitikoago eta kontestualizatuago batera eta, orobat, komunikazioaren egoera eta idatzi beharreko testu mota zehaztu nahi izan dira. Horretaz gainera, sarrera bikoitzeko koadro batean ikus dezakegu ziklo bakoitzean zer hartuko den kontuan, egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna eta komunikazio baliabideen aberastasuna balioesterakoan.

Hirugarren kapituluan problemaren ebazpenaren ebaluazioaz ari da. Ziklo bakoitzean lan daitezkeen problemaren tipologia deskribatzen da. Horretarako, argitaletxeen proiektu guztien arteko adostasuna bilatu nahi izan da eta indarreko curriculum eta adierazleak kontuan hartu dira. Beharbada, eta hau berria da, garrantzi berezia eman nahi izan zaie problemaren enuntziatua ulertzeari eta problema ebazteko egin beharreko “urratsei”.

Laugarren kapituluan, azturen, balioen eta jarreraren ebaluazioa xeheki deskribatzen da. Hala ere, ez da lan horretan galtzen, irakasleendako ez baita berria galde-sorta bidez ebaluatzeko metodologia.

Askotarikoak izan daitezke kapitulu hauen irakurketak, eta irakaslanaren eta haren ebaluazioaren hobekuntzari begira egin daitezkeen lana. Hala ere, bada haren ahalmenagatik berezia egiten den ikuspegi bat: etapako hiru zikloetan ebaluaturiko gaitasunen bilakaeran hautematen den gradienteaz aztertzea. Kapitulu hauetan zein galdera ereduaren eranskinetan antzematen da hiru zikloetan landu beharreko oinarrizko gaitasunen mailakatzea, baina beti ikasleen adinari eta jakintzei egokiturik.

Azkenik, eranskinetan galdera ereduak sartu dira (galdera horiek erabilgarriak izan daitezke ebaluazio esparruari dagozkion ataletan bildutako informazioa eta deskribapenak zehaztu eta ereduaz hornitzen dituztelako). Ereduaren eta zehaztapenaren bidetik abiatu ebaluazioaren ikusmolde hau ulertzen lagunduko dute. Hala nahi genuke behinik behin.

Irakurmenean askotariko jakintzek eta trebetasunek dute lekua. Irakurketak abian jartzen ditu askotariko prozesu kognitiboak eta metakognitiboak eta horietan esku hartzen dute irakurlearen arrazoitzeko gaitasunak, oroitzapenak eta aurretik dakienak. Kodea gazte samar denean ikasten bada ere, prozesu asoziatibo motela egin behar da gero, eta hori nahita eta sistematikoki egin beharreko lana da.

Irarkurtzerakoan, irakurlearen eta testuaren artean elkarreragina sortzen da testuinguru jakin batean: testuan ez da beti gauza bera esaten, hori irakurleen edo denboraren arabera baita. Elkarreraginerako kontzepzio hori gaur egun ezartzen ari diren irakurketa ebaluazioen azpian ageri da.

Testuinguru jakin batean irakurlearen eta testuaren artean gertatzen den elkarreraginak agerian uzten du irakurketaren hiru dimentsio hauen garrantzia: zein egoeratan gertatzen den, egilearen asmoari eta irakurketaren xedeari dagokionez; testu eta testu-genero motak; eta irakurritakoari esanahia ematea ekartzen duten ulermen prozesuak. Horretaz gainera, irakurlearen jarrerak eta irakurtzeko azturak ezinbestekoak dira irakurketara hurbiltzerakoan.

Printzipio horien eta ziklo bakoitzerako adierazleen arabera, proban testuak eta horien gaineko galderak jarriko dira. Testuak eta galderak askotarikoak izanen dira eta testua zenbateraino ulertu den jakiteko balioko dute.

1.1. Ebaluazioan sartutako irakurketa prozesuak

Ebaluazioan sartu dira, hiru zikloetan, Hobekuntza Planean biltzen diren **prozesu hauek**:

- a) Informazioa berreskuratzea: hitzez hitzeko ulermena eta informazio baliokidea bilatzea.
- b) Ulermen globala.
- c) Testua interpretatu eta berregitea.
- d) Testuaren formaz eta edukiaz hausnarketa egitea.

a) “Informazioa berreskuratze” galderak:

Galdera hauen bidez irakurritako testuaren gaineko informazio puntuala izanen dugu. Horrela egiaztatuko dugu irakurleak testuaren gaineko aski informazio ote duen. Esate baterako: narrazio testuetan, pertsonaiak zein diren; jarraibideak emateko testuetan, ekintza bat zer hurrenkeratan egin behar den; azalpen testuetan, animalia batek zer ezaugarri dituen; testu deskribatzaileetan, pertsona fisikoki nolakoa den... Honako hauek adibide batzuk besterik ez dira.

Galderak bi motatakoak izan daitezke: hitzez hitz ulertzekoak edo informazio baliokidea bilatzekoak.

b) “Ulermen globalerako” galderak:

Galdera hauei erantzun ahal izateko testua sakonago ulertu behar da. Irakurleak argudioaren haria zein den antzeman behar izan du eta funtsezkoaren ideia globala izan. Esate baterako: narrazio testuetan, tramaren funtsa; azalpen testuetan, sustraiko eta funtsezko ideiak; jarraibideak emateko testuetan, ekintza baten sekuentzia oso eta globala; testu deskribatzaileetan, pertsonaia baten alderdi fisiko eta psikologikoen ikuspegi osoa. Ulermena sakonagoa eta koherenteagoa izanen da.

c) “Interpretaziorako” galderak:

Galdera hauen bidez balioesten da irakurleak pertsonaien arteko harremanak ulertzen ote dituen; narrazio testuetan, pertsonaien eta ekintzen artekoak; azalpen testuetan, elementuen, egoeren, gertakarien eta abarren artekoak; testu deskribatzaileetan, ezaugarriak eta harremanak inferituz, hitzez hitz deskribatutakotik haratago joateko aukera ematen dutenak; jarraibideak emateko testuetan, esan gabekoa ondorioztatzea, ekintzen sekuentzia ulertzeko beharrezkoa bada ere, etab. Hitzez hitzeko ulermenaren ikuspegia baino haratago joateko aukera dugu. Hortik datorkio balioa irakurketari.

d) “Edukiaren hausnarketari eta balioespenari” buruzko galderak:

Galdera hauen bidez balioesten da, ulermenetik abiatuturik eta hausnarketaren bidez, norberak testuaren aurrean hartuko duen rola. Ulermen lanak zabaltzeko aukeratzat har daiteke. Esate baterako: galdetzen da istorio batek egiazkoa izateko duen itxuraz; irakurleak pertsonaiei buruz zer iritzi duen; irakurleak zer egingen lukeen halako zerbait gertatu izan balitzaio, etab.

e) “Formaren gaineko hausnarketari eta balioespenari” buruzko galderak:

Galdera hauek informazioa ekarri nahi dute irakurleak testua hobeki uler dezan laguntzen duten testuzko seinaleetatik informazioa ateratzeko duen gaitasunaz. Esate baterako: jakin nahi da ea ikasleak konturatzen ote diren “Behin batean...” hasiera duen testua ipuin bat dela edo marratxoek pertsonaien arteko elkarriketa markatzeko balio dutela, etab.

Horren ondoren, prozesuak eta horiekin lotutako estrategiak deskribatu dira koadro batean eta, orobat, proba bakoitzean sar daitezkeen galdera motak:

IRAKURRIAREN ULERMENA EBALUATZEKO GALDERA EREDUAK

Prozesua	Prozesua zertan den	Galdera-mota ereduak
Informazioa berreskuratzea	<p>Ageriko informazioa identifikatzeko eta berreskuratzeko irakurtzen dugu, batzuetan. Adibidez, denok kontsultatzen dugu telefono gida edo errezeta baten osagaiak bilatzen ditugu edo galdera jakin baten erantzuna bilatzen dugu edo... Irakurtzeko modu selektibo hau egiteko bilaketa aktiborako estrategiak behar dira. Xedea ez da testuko informazioa oso-osorik ulertzea, testuaren barneko informazio puntuala aurkitzea baizik. Helburu honekin zerikusia duten ebaluazio galderekin frogatu nahi da irakurlea gai ote den testuan ageriko informazioa aurkitzeko (informazio hori baldintza edo aurretiko eskakizun bati dagokio).</p>	<p>a) Testua hitzez hitz ulertzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontakizun bateko denbora edo tokia identifikatzea... - Zenbait osagai lokalizatzea. - Xehetasunak ezagutzea. <p>b) Informazio baliokidea bilatzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sinonimoen bidez emandako ageriko informazioa lokalizatzea. - Parafraasiak eta esamolde baliokideak.
Testuaren ulermen globala	<p>Ulermen globalaren bidez testua bere osotasunean hartu nahi da. Irakurketa mota honetan multzoak du garrantzia, ez xehetasunak. Irakurleak helburu jakin batekin irakurtzen du: testuan esaten denaren ideia orokorra izatea. Irakurleak, testua begi aurrean duenean, testuaren edukiaran funtsezko ikuspegia eskuratu nahi du. Funtsezko ikuspegi honen bidez, irakurleak <i>testuaren zatiak txertatu eta zati horien arteko koherentzia bila dezake.</i></p>	<p>a) Ideia nagusia edo gaia zehazteko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren zentzia ongien biltzen duen esaldia hautatzea. - Grafiko edo taula baten dimentsio nagusiak identifikatzea. - Izenburua hautatzea edo prestatzea. - Ideia nagusia ondorioztatzea. - Testua laburbiltzea. - Literatura testu baten gaia edo mezua identifikatzea. - Jarraibide batzuen hurrenkera irizpidea azaltzea. <p>b) Testu baten asmo orokorra identifikatzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testu baten asmo orokorra identifikatzea. - Mapa edo koadro baten, Interneteko orri nagusi baten... helburua zein den azaltzea. - Istorio baten giro edo tonuaren, eta egilearen asmoaren arteko erlazioa. <p>c) Testu baten erabilera orokorra identifikatzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mapa edo koadro baten, Interneteko orri nagusi baten... erabilera zein den azaltzea. - Mezu baten hartzaileak identifikatzea. - Emandako testua zein liburu motatatik atera ote den aurkitzea.
Interpretazioa	<p>Ulermenarekin zerikusia duten lan hauen helburua da testuaren zentzuari doitutako interpretazio bat prestatzea. Irakurtzeko modu honen bidez testuaren zatiak elkarren artean erlazionatzen ditugu eta, osotasunari dagokionez, zatien arteko koherentzia eta zentzia bilatzen dugu. Era berean, indukzioak, ondorioak eta inferentziak egiten ditugu, testuan ez baitago informazio osoa eta ez baitira bukatzen edukiaran zentzuak. Esate baterako, egilearen asmoek ihes egiten diote testuko hitzen hitzez hitzekotasunari. Irakurtzeko modu honek irakurlea behartzen du zenbait gaitasun menderatzera, hots, testuaren informazioa eta irakurlearen jakintzak erlazionatzera. Testua sakon ulertzeko ezin aproposagoa da irakurketa mota hau.</p>	<p>a) Informazioa erkatze edo kontrastatzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bi pertsonaien arteko erlazioa deskribatzea. - Pertsonaien, argudioen eta tokien arteko erlazioa azaltzea. - Testuko ilustrazioen eta edukien arteko erlazioak ezartzea. <p>b) Ondorioak edo inferentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izenordain baten erreferentzia zein den zehaztea. - Erlazio edo kategoria baten ondorioa. - Elementu anaforiko baten erlazio erreferentziala zein den zehaztea. - Gertatuko dena igartzea eta igarpenak gainbegiratzea edo baiestea. - Pertsonaien ekintzen alternatibak kontuan hartzea. - Pertsonaia jakin baten asmoa zein den ondorioztatzea. - Esanahia ondorioztatzea testuingurutik abiatutik. - Sekuentzia baten azpiko irizpidea aurkitzea. - Testu batean jeneralizazioak identifikatzea. - Testuaren informazioaren benetako aplikazioa interpretatzea. - Ikasketa morala ondorioztatzea. <p>c) Laguntza probak identifikatzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bi gertakariaren arteko kausalitate erlazioa identifikatzea. - Ondorioarekin ekarritako proben zerrenda. - Erabilitako probak identifikatzea, egilearen asmoa zein den suposatu ahal izateko.

Prozesua	Prozesua zertan den	Galdera-mota ereduak
Testuaren edukiari buruzko hausnarketa eta testuaren balioespena	Interpretazioan, irakurleak <i>munduaz dakiena</i> erabiltzen du testua interpretatu eta ulertzeko. <i>Irakurketa erreflexiboa</i> , irakurleak, testuaren errealitatea hobeki ulertzearen, testuaren edukiaren gaineko gogoeta egiten du. Irakurleak testua zentzuz ulertu behar du bere ikuspuntu eta eskemekin erkatu ahal izateko. Hala, irakurri duen hori balioetsiko du ikusmolde pertsonal eta kritikoaren bidez. Irakurketak errealitateaz dugun ikuspegia aberasteko balioa du. Gure eskemetan irakurritakoa txertatuko dugu eta eskema horiek aberastu eta ñabartuko ditugu. Irakurtzea bera aitzakia da irakurritakoaren gainean gogoeta egiteko eta testuaren edukiez geure buruari galderak egiteko. Irakurleak halako lanak egiten dituenean, testutik haratago doa.	<p>a) Munduaren gaineko jakintza bera kontrastatzeko galderak.</p> <p>b) Beste iturri batzuetatik eskuratutako jakintzak kontrastatzeko galderak.</p> <p>c) Galderan agerian utzitako ideiekin kontrastatzeko galderak.</p> <p>Honako hiru atal hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Deskribatutako gertakariak benetan gertatzeko aukera balioestea. - Benetako gertakarien eta fantasiako gertakarien artean bereizketa egitea. - Egileak gaiaren gainean duen jarrera balioestea. - Testuko informazioa osoa eta argia ote den iritzia ematea. - Informazio zatien garrantzia ebaluatzea. - Egileak ekarritako proben balioespena. - Datu edo proba jakin batzuen garrantzia balioestea. - Egilearen argudio bat indartzeko datu alternatiboak ekartzea. - Testutik kanpoko probak edo argudioak ekartzea. - Edukia bizikidetzeta, etika, estetika eta abarretarako araukin erkatzea.
Testuaren formari buruzko hausnarketa eta testuaren balioespena	Irakurtzeko modu honetan testuaren alderdi formalean oinarrituriko ikusmoldea hartzen da kontuan. Irakurleak ezaugarri jakin batzuk (alderdi formalenak, eta gaiaren eta estiloaren ikusmoldearenak) aztertu behar ditu eta horrek testuan duen garrantzia kontuan hartu behar du. Irakurlea, irakurtzeko modu horren bidez, kontziente da badirela ezkutuan geratzen diren ezaugarri jakin batzuk eta batzuetan oharkabean gordeta geratzen diren ñabardurak.	<p>a) Testuaren egiturari buruzko galderak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testu baten funtsezko zatiak zein diren ezagutzea. - Testu genero bati hasiera eta bukaera ematen dioten ohiko esaldiak zein diren ezagutzea. <p>b) Testuaren estiloaren eta erregistroaren gaineko galderak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errepikatzen diren hitzen gaineko hausnarketa egitea. - Zenbait adjektibo ordezkatzeta eta emaitza balioestea. - Helburua lortzeko, testuan ezaugarri jakin batzuen erabilera ebaluatzea. - Testuaren edertasuna balioestea. - Estilo zuzenaren eta zeharkako estiloaren arteko bereizketa. - Ironia ulertzea. - Gizalegezko arauak identifikatzea.

1.2. Ebaluazioan sartutako testu motak

Testu mota hauek ebaluatzen dira:

- Lehen zikloa: **narrazio testuak** eta **azalpen testuak**.
- Bigarren zikloa: **narrazio testuak**, **azalpen testuak** eta **jarraibideak emateko testuak**.
- Hirugarren zikloa: **narrazio testuak**, **azalpen testuak**, **jarraibideak emateko testuak**, **testu deskribatzaileak** eta **testu etendunak**.

Testuak mailaren arabera hautatuko dira, eta testuaren egitura eta hiztegia zikloan normalean lantzen denaren arabera izanen dira. Testuak aukeratzeko hiru irizpide hauek erabiliko dira:

- a) Ikasleengan pitz dezaketen interesa (edukiarekin du zerikusia).
- b) Egitura linguistikoa eta hiztegiaren zailtasuna (perpau motekin, paragrafoka antolatzearekin eta abarrekin du zerikusia).
- c) Testuak ematen dituen aukerak, ulermenarekin zerikusia duten prozesuak ebaluatzeko bidezkoak diren itemak edo galderak prestatzeko.

a) Narrazio testuak:

Aukeraturiko narrazio testuen egitura erraza izanen da, edukiari zein forma linguistikoari dagokionez, eta hiztegia kasuko zikloko ikasleen adinari egokituko zaio. Ikasleek normalean erabiltzen duten hiztegiak ez den hitzen bat agertzen bada, haren esanahia emanen da, testuinguruak hura ondorioztatzen ez badu behintzat. Zikloetan aurrera egin ahala handituko da testuen luzera. Ebaluazio mota hauetan, Hezkuntza Departamentuak nazioarteko ebaluazioak ditu abiapuntu. Ulermenezko irakurketaren ebaluazioan (PIRLS), Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoari aplikatutakoan, gure hezkuntza sisteman ohikotasunez erabiltzen diren testuak baino luzeagoak erabili ohi dira.

Narrazioetan elkarrizketak badaude, zaluak eta zuzenak izanen dira (lehen eta bigarren zikloetan, bereziki). Narrazioetako hizkuntza irakurleak erabilitakoaren antzekoa izanen da. Narrazio horietako gaia ere ikasleen esperientzietan eta giroan erabilitakoaren antzekoa izanen da. Testuak ulertzeko ez da aurretiko jakintza eta esperientzia berezirik behar. Beraz, maila bakoitzeko ikasleek irakurtzeko moduko testuak izanen dira, baita testu horietako letra mota, hiztegia, gaia eta esaldien egiturak ere.

Testuen narrazio egiturari dagokionez, esan behar da oso erraza izanen dela lehen eta bigarren zikloetan eta zertxobait zailduko dela hirugarren zikloetan. Trama lineala izanen dute eta pertsonaiak oso zehaztuak eta ez oso anibalenteak izanen dira. Ipuin eta narrazio askoren berezko trama izanen dute: protagonistak arazo batekin egiten du topo (itxuraz konpontzerik ez duena, gainera); pertsonaietako baten batek laguntzen dion bitartean, beste batzuek zailtasunak jarriko dizkiote. Bukaeran, arazoa konponduko da eta dena hasierako egoera gozo eta lasaira itzuliko da.

b) Azalpen testuak:

Aurreko paragrafoan narrazio testuen gainean esan den gehienak balio du azalpen testuetarako. Hori hala izanik ere, testu mota honen gainean zehaztapen bat edo beste egin daiteke. Azalpen testuek ez dute narraziozkoek duten tramarik (identifikatzeko moduko aurkezpen, bilbe eta bukaerarik); hala ere, horrek ez du esan nahi egitura propiorik ez dutenik.

Argudioaren haria (hala esaterik bada) logikoagoa da, dramatikoa baino gehiago, nahiz eta maila baxuei egokituriko azalpen testu batzuetan narrazio txikien edo mikronarrazioen antza handiagoa duten pertsonak eta egoerak agertu; kausazko eta helburuzko erlazioak gailentzen dira (zergatik, zertarako, etab.). Adin hauetara egokituriko azalpen testu baten berezko egituraren ezaugarriak honako hauek dira: planteamendua, gaiaren garapena eta bukaera. Planteamenduan gaia aurkeztu eta esaten da zein ikuspuntutatik landuko den. Ondotik, gaiaren garapen logiko eta progresiboa egingen da, ideiak lotzeko zehazturiko irizpide bati jarraikiz. Azkenik, bukaeran, azalpenaren alderdi garrantzitsuenak eta nabarmenenak papereratuko dira.

Aurretiko jakintzak eta esperientziak nabarmenagoak dira testu mota hauek ulertzeko. Nolanahi ere, ez da zikloari dagozkion jakintzetatik urruntzen den testurik aukeratuko. Gaiak honako hauei buruzkoak izaten ahal dira: animalien edo giza gizarteen ohiturak, tresnen funtzionamendua, etab.

c) Jarraibideak emateko testuak:

Testu hauek bigarren eta hirugarren zikloetan soilik sartzen ahalko dira. Jarraibideak errazak izanen dira, baldin eta arreta handiz irakurtzen badira. Ikasleek arazoak izaten dituzte testu hauek ulertzeko, hitzetatik buruko irudietarako bidea egiten ez badute behintzat. Gaiak honako hauei buruzkoak izaten

ahal dira: sukaldeko errezetak, tresna baten funtzionamendurako jarraibideak, jostailu bat nola eraiki, funtzionamendu arauak, etab. Bigarren zikloan, testuak linealak eta ez oso luzeak izanen dira. Hirugarren zikloan, testuen konplexutasuna eta luzera handitzen ahal dira, baita gai beraren gainean jarraibideak emateko bi testu jarri ere. Hala eginez gero, bi errezeta erka daitezke (galdera batzuk errezeten arteko desberdintasunei buruzkoak izan daitezke; beste batzuk, aldiz, antzekotasunei buruzkoak).

d) Testu deskribatzaileak:

Hirugarren zikloan soilik sartzen ahalko dira. Bi aukera daude: narrazio testuen barnean zati deskribatzaileak sar daitezke edo testu deskribatzaile soilak jar daitezke. Literatura testu bat ulertu ahal izateko, irakurlea deskribatutako pertsonaren eta tokiaren barnean sartuko da. Ikusmoldea literarioa edo prosaikoa izan daiteke, gutxi gorabehera, baina inoiz ere ez hitzez hitzeko ulermenetik haragokoa. Literatura deskribapenez gainera, deskribapen teknikoak ere sar daitezke.

e) Testu etendunak:

Azalpen testuetan ager daitezke, baita berez testu etenduntzat jotakoetan ere. Haien formatuaren arabera, koadroak eta grafikoak, taulak, diagramak, mapak, formularioak eta abar izan daitezke.

Testu hauek ulertu ahal izateko, irakurketa ez-linealeko estrategiak erabili behar dira (estrategia horien bitartez informazioa modu global eta erlazioatuagoan bilatu eta interpretatzen da).

1.3. Irakurtzeko gaitasunaren balioespena

Aurrekotik ondorioztatzen da ezinezkoa izanen litzatekeela jakitea ikasle batek testua ulertu duen edo ez, erantzun zuzenen eta okerren kopuruari soilik erreparaturik. Akatsak banan-banan aztertu beharko lirateke ikasleak testua ulertu duela eta noraino ulertu duen ondorioztatzeko. Ez da gauza bera huts egitea galdera literalagoetan edo galdera globalaetan edo inferentzia bat egin beharreko galderetan. Ikaslearen orientazioaren ikuspuntutik, berebizikoa da ikasleari laguntza ematea irakurtzen duen hori uler dezan.

Hori hala izanik ere, kanpo probari begira, komeni da atalase bat ezartzea (ulermenean maila onargarria, oro har, lortu den jakin ahal izateko). Gorago aipaturiko mugak gorabehera, atalase hori zenbakitan emanen da, itemen entitate eta zailtasun enpirikoaren arabera. Maila onargarria zehazteko orientabide modura-edo, uste izaten da irakurle batek galderen %25etik %35erako tartean egiten duela huts (testu motaren eta eskatutako lanen arabera). Atalase maila behin betiko proben pilotajeaz ezarriko da eta “epaileen artean” izeneko metodologia erabiliko da.

Atal honetan zehazten da Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako bakoitzaren bukaeran, Gaztelania irakasgai eta, kasu bada, Euskara irakasgai ikasleek testu idatziak ekoizteko duten gaitasuna nola ebaluatu behar den.

2.1. Ebaluazio arloaren definizioa

Idazketa jarduera kognitibo konplexua da; komunikatzea du xede eta gauzatzeko aurretik planifikatu behar da eta etengabe gainbegiratu. Horretaz gainera, testuen ekoizpenaren eta beste hizkuntza gaitasun batzuen artean lotura estua da, esate baterako, ahozko hizkuntzaren eta irakurketaren artean. Beraz, idazketa ebaluatzea zaila gertatzen da.

Hori hala izanik ere, eskola inguruko idazketaz ari garela, sakon loturik dauden hiru ikusmolderen bitartez hurbil gaitezke idazketara: testu motak, testuak ekoizteko aldiak, eta testualitatearen arauak eta printzipioak. Lehen dimentsioari dagokionez, testu hauetaz ari gara: narrazio testuak, testu deskribatzaileak, azalpen testuak, argudiozko testuak, jarraibideak emateko testuak eta elkarrizketak. Bigarren ikusmoldetik abiatuz, hiru alde hartuko dira kontuan: plangintza, testualizazioa eta gainbegiraketa. Testualitatearen arauak eta printzipioak dagokienez, komunikazio baliabideen egokitasunari, koherentziari, kohesioari, zuzentasunari eta aberastasunari erreparatuko zaie.

Proba puntualek eta kanpo probek mugatzen dute testu idatziak ekoizteko gaitasunaren ebaluazioa, adibidez, idazketa prozesuari dagokiona. Honako honetan kanpo ebaluazioaz ari garenez, landuko diren dimentsioak zehaztu dira hemen, beste testuinguru batean gaitasun hau ebaluatzeko aukerak agortu gabe.

2.2. Probaren ezaugarriak

Honetan datza proba: komunikazio egoera jakin bat erakusten duten testuak idaztea, ziklo ziklokako ondoko banaketa honen arabera:

LEHEN ZIKLOA	Ikastetxeko irakas-hizkuntzan (gaztelaniaz edo euskaraz) idatzitako testu erraz bat.
BIGARREN ZIKLOA	Eguneroko gaiei buruzko testu bat gaztelaniaz ikasten ari diren ikasleendako eta, D ereduko ikasleendako, euskaraz idatzitako beste testu bat.
HIRUGARREN ZIKLOA	Eguneroko gaiei edo berariazko gaiei buruzko bi testu gaztelaniaz edo, D ereduko ikasleendako, testu bat gaztelaniaz eta beste testu bat euskaraz.

a) Testu motak

Testuak modu batean baino gehiagotan sailka daitezke (formatuaren arabera, gaiaren arabera, komunikazio testuinguruetan duten erabileraren arabera, komunikazio xedearen arabera...). Ondorio horietarako eta komunikazio asmoan oinarrituriko sailkapen irizpideari jarraikiz, ebaluazio honetan jar daitezkeen testu motak honako hauek dira:

LEHEN ZIKLOA	Narrazioa Deskribapena Jarraibideak
BIGARREN ZIKLOA	Narrazioa (elkarrizketak ere sar daitezke) Azalpen testua Jarraibideak
HIRUGARREN ZIKLOA	Narrazioa (elkarrizketak eta azalpen erako sekuentziak ere sar daitezke) Deskribapen objektibo edo subjektiboa Azalpen testua Jarraibideak

b) Aldiak

Plangintza aldia balioetsiko da. Horrekin batera, ikasleak hitz zerrenda bat, aurretiko ideien zerrenda bat eta gidoi bat idatzi dituen edo plangintzarako bestelako estrategiarik erabili duen egiaztatuko da.

Proba honen bidez zaila gertatuko da gainbegiraketa aldia balioestea.

c) Testualitate irizpideak

Kontuan hartuko da komunikazio baliabideen egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

Egokitasuna: kontuan hartzen da testuinguru jakin bateko gizarte arauak hizkuntzan duten eragina. Egokitasuna balioesteko kontuan hartuko dira: lanarekiko egokitasuna, hartzaila kontuan hartzen den eta erregistro egokiaren erabilera.

Koherentzia: xedea da hartzailak testuak unitate zentzudun bat bezala ulertzea. Ondoko alderdi hauen arabera neurtuko da: ekoizpenak zentzu globala ote duen, eskaturiko testu motaren berezko egitura kontuan hartu den, testuaren antolaketa eta, hirugarren zikloan, progresio tematikoa.

Kohesioa: testuko osagaien arteko erlazioak dira. Honako hau balioetsiko da: testua ongi artikulaturik dagoen, puntuazio zeinuak, markatzaileak eta testu juntagailuak kontuan hartzen dituen, aditzaldiak egoki erabiltzen dituen eta erreferenteak erabiltzen dituen (bigarren eta hirugarren zikloetan).

Zuzenketa: hizkuntzaren arauekin lotu ohi da. Kontuan hartuko ditu aurkezpena (garbitasuna eta espazioaren banaketa), letraren irakurgarritasuna (tamaina, lerrokatzea...), ortografia eta sintaxia. Euskara arloari dagokionez, horietaz gainera kontuan hartuko dira deklinabideko kasuak eta aditz formak zuzen erabiltzea.

Komunikazio baliabideen aberastasuna: edukia (irudimena...) eta forma (hiztegiaren aberastasuna...) balioetsiko dira.

Zikloetan kontuan hartuko diren alderdiak ondoko taula honetan ageri dira, alderdi horietako anitzen arteko lotura estua alde batera utzi gabe.

TESTUALITATE IRIZPIDEEN BILAKAERA, LEHEN HEZKUNTZAKO HIRU ZIKLOETAN

	LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
EGOKITASUNA	Eskatutako lanari egokitu zaió (xedeá eta luzera).	Eskatutako lanari erantzun dio (xedeá eta luzera).	Eskatutako lanari erantzun dio (xedeá eta luzera).
	Hartzailea kontuan hartzen du.	Hartzailea kontuan hartzen du.	Hartzailea kontuan hartzen du.
	Ez du esamolde desegokirik.	Komunikazio egoerari egokitu zaión erregistroa.	Komunikazio egoerari egokitu zaión erregistroa.
KOHERENTZIA	Ekoizpenak zentzu globala du.	Ekoizpenak zentzu globala du eta gai baten inguruan antolatzen da.	Ekoizpenak zentzu globala du, gai baten inguruan antolatzen da eta beharrezko informazioa du.
	Eskatutako testu motaren berezko egitura errespetatzen du.	Eskatutako testu motaren berezko egitura errespetatzen du.	Eskatutako testu motaren berezko egitura errespetatzen du. eta, kasua bada, prozedura tipografikoak (zenbakitzea, azpítitulua...) erabiltzen ditu.
	Testua paragrafotan banatzen du.	Testua honela antolatzen da: ideia bat, paragrafo bat.	Testua honela antolatzen da: ideia bat, paragrafo bat; eta idazkiaren zatien arteko lotura antzeman da.
		Testuan nahiko ideia dago.	Bada progresio tematikoa, informazio hutsunerik gabe eta behar ez diren errepikapenik gabe.
KOHESIOA	Puntuazioa: puntua; koma zerrendetan; galdera eta harridura zeinuak.	Puntuazioa: puntua; koma zerrendetan; galdera eta harridura zeinuak; bi puntuak; marra handia eta marra txikia elkarrizketetan.	Puntuazioa: puntua; koma; puntu eta koma; galdera eta harridura zeinuak; bi puntuak; parentesia; hitzak zatitzeko marra eta hitz konposatuetakoa; marra handia elkarrizketetan eta oharretan; komatxoak eta eten-puntuak.
	Denborazko testu-markatzaileak eta testu-lokailuak.	Denborazko testu-markatzaileak eta testu-lokailuak eta diskurtso-antolatzaileak paragrafoen hasieran.	Testu-markatzaileak eta testu-lokailuak.
	Aditzaldien erabilera egokia.	Aditzaldien erabilera egokia.	Aditzaldien erabilera egokia.
		Erreferenteen erabilera: izenordainak edo sinonimoak.	Erreferenteen erabilera: izenordainak, izen sinonimoak eta osagai anaforikoak.

	LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
ZUZENTASUNA	Aurkezpena: garbitasuna eta espazioaren banaketa.	Aurkezpena: garbitasuna eta espazioaren banaketa.	Aurkezpena: garbitasuna eta espazioaren banaketa.
	Letraren ulergarritasuna: tamaina, lerrokatzea...	Letraren ulergarritasuna: tamaina, lerrokatzea...	Letraren ulergarritasuna: tamaina, lerrokatzea...
	Ortografia: <ul style="list-style-type: none"> fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasuna. hitzen arteko bereizketa. maizenik erabiltzen diren hitzen ortografia naturala. oinarrizko ortografia-arauak: hitz larrien eta xeheen erabilera... 	Ortografia: <ul style="list-style-type: none"> fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasuna. hitzen arteko bereizketa. maizenik erabiltzen diren hitzen ortografia naturala. hitzen segmentazioa lerroaren bukaeran oinarrizko ortografia-arauak: hitz larrien eta xeheen erabilera, azentu-markak... 	Ortografia: <ul style="list-style-type: none"> fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasuna. hitzen arteko bereizketa. maizenik erabiltzen diren hitzen ortografia naturala. hitzen segmentazioa lerroaren bukaeran ortografia-arauak, salbuespenak, azentu-markak diptongoetan eta hiatuetan... barne.
	Sintaxia: <ul style="list-style-type: none"> genero, zenbaki eta pertsona komunztadura perpaus bakunean hitz ordena perpausuan 	Sintaxia: <ul style="list-style-type: none"> genero, zenbaki eta pertsona komunztadura joskeraren oinarrizko arauak errespetatzea 	Sintaxia: <ul style="list-style-type: none"> genero, zenbaki eta pertsona komunztadura joskeraren oinarrizko arauak errespetatzea
	Euskara: oinarrizko deklinabide kasuak eta aditz formak zuzen erabiltzea.	Euskara: oinarrizko deklinabide kasuak eta aditz formak zuzen erabiltzea.	Euskara: gehien erabilitako deklinabide kasuak eta aditz formak zuzen erabiltzea.
KOMUNIKAZIO BALIABIDEEN ABERASTASUNA	Edukia: irudimena...	Edukia: irudimena...	Edukia: irudimena, gaia interesez lantzea, orijinaltasuna.
	Forma: <ul style="list-style-type: none"> hiztegiaren aberastasuna perpaus bakunak eta juntaturazko perpaus elkartuak erabiltzea 	Forma <ul style="list-style-type: none"> hiztegiaren aberastasuna, honako hauek barne direla: izenak, aditzak, adjektiboak eta adberbioak, hitz eratorriak eta hitz elkartuak. juntaturazko perpaus elkartuak eta mendeko perpausak (helburuzkoak, kausazkoak...) erabiltzea. hizkuntza irudikatua: konparazioak, pertsonifikazioa. 	Forma: <ul style="list-style-type: none"> hiztegiaren aberastasuna, honako hauek barne direla: hitz mota bat baino gehiago, sinonimoak eta antonimoak, gaiaren berariazko hiztegia, esaldi eginak. askotariko sintaxia, perpaus elkartuen erabilera barne. hizkuntza irudikatua: konparazioak, metaforak, pertsonifikazioa.

2.3. Testu ekoizpenaren balioespena

Ondoko taula honetan bildu dira gorago aipatutako alderdiak. Alderdi horiek kontuan hartuko dira ikasleen lan idatziak kalifikatzerakoan, ziklo bakoitzerako alde zurretik ezarritakoaren arabera:

DIMENTSIOA	ALDERDIAK	BAI/EZ/PARTE BATEAN	KALIFIKAZIOA*
<i>Planifikazioa</i>	Hitz zerrenda bat, aurretiko ideiak, gidoia... izatea		
<i>Egokitasuna</i>	Agindutako lanari egokitzen zaio (testuaren xedea eta luzera)		
	Hartzailea kontuan hartzen du		
	Komunikazio egoerari egokitzen zaion erregistroa		
<i>Koherentzia</i>	Zentzu globala, gai baten ingurukoa		
	Eskatutako testu motaren berezko egitura		
	Testuaren antolaketa		
	Progresio tematikoa		
<i>Kohesioa</i>	Puntuazioa		
	Testu-markatzaileak eta testu-lokailuak		
	Aditzaldien erabilera egokia		
	Erreferenteak		
<i>Zuzentasuna</i>	Aurkezpena		
	Letraren irakurgarritasuna		
	Ortografia		
	Sintaxia		
	Euskara: deklinabide kasuak eta aditz formak		
	Hiztegia		
	Askotariko sintaxia		
Balioespen globala			

* KALIFIKAZIO ESKALA:

- 4: Zikloko helburuak oso maila onarekin lortu ditu.
- 3: Helburuak lortu ditu.
- 2: Mugan dago.
- 1: Ez ditu zikloko helburuak lortu.

Ikastaldearen ebaluazioaren emaitzak honako taula honen antzeko batean bil daitezke:

DIMENTSIOA	ALDERDIAK	IKASLEEN KALIFIKAZIOAK																		
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	...				
<i>Planifikazioa</i>	Hitz zerrenda, aurretiko ideiak, gidoia...																			
<i>Egokitasuna</i>	Lanari egokitzen zaio (xede eta luzera)																			
	Hartzailea hartzen du kontuan																			
	Erregistro egokia																			
<i>Koherentzia</i>	Zentzu globala																			
	Eskatutako testu motaren egitura																			
	Testuaren antolaketa																			
	Progresio tematikoa																			
<i>Kohesioa</i>	Puntuazioa																			
	Testu-markatzaileak eta testu-lokailuak																			
	Aditzaldien erabilera																			
	Erreferenteak																			
<i>Zuzentasuna</i>	Aurkezpena																			
	Letraren irakurgarritasuna																			
	Ortografia																			
	Sintaxia																			
	Euskara: deklinabide kasuak eta aditz formak																			
<i>Baliabideen aberastasuna</i>	Edukia																			
	Hiztegia																			
	Askotariko sintaxia																			
Balioespen globala																				

2.4. Lan ereduak

Lana beti komunikazio egoera jakin batean txertatuko da eta testuak gaztelaniaz eta, kasua bada, euskaraz sortu beharko dira. Honako hauetako baten baten antzekoak izan daitezke:

LAN IDATZIEEN EREDUAK

	LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
NARRAZIO TESTUAK SORTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Bizi izandako gertaera bat kontatzea: ikasturtearen lehen eguna, ikasturtearen azken eguna, festa bat, txango bat, bidaia bat, abentura bat, berri bat... Beldurra, poztasuna, tristura, harridura... sorrarazi zuen zerbait kontatzea. Haur bati, animalia bati, landare bati... buruzko ipuin bat asmatzea (ezaugarri jakin batekoa, esate baterako, langile edo abenturazale bati buruzkoa) Ipuin baten hasiera eman eta hari segida ematea. Narrazio testu bat idaztea bizpahiru irudi edo biñetaren laguntzaz. Gutun labur bat edo postal bat idaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ipuin bat asmatzea, aurretik emandako ideia batetik abiatu: hegan egitea gustuko ez duen txori bat, beste planeta bat ezagutu nahi duen haur bat... Ipuin baten hasiera eman eta hari segida ematea. Pertsonaia ezagun baten biografia idaztea. Narrazio testu bat idaztea zenbait irudi edo biñetaren laguntzaz. Egunkari bateko orrialde bat idaztea. Gutun labur bat, postal bat edo gonbit bat idaztea. Egiazko gertaera bat edo fantasiako gertaera bat kontatzea: bidaia bat, festa bat, ospakizun bat, txango bat, abentura bat, lehiaketa bat, gertaera bat... Beldurra, poztasuna, tristura, harridura... sortu zuen zerbait kontatzea. Ipuin ezagun bat laburtzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Egiazko gertaera bat edo fantasiako gertaera bat lehen edo hirugarren pertsonan kontatzea: bidaia bat, festa bat, ospakizun bat, txango bat, abentura bat, lehiaketa bat, berri bat... Kontrajarritako sentimenduak sortu dituen zerbait kontatzea: hasieran tristura, eta gero, poztasuna; haserrea batzuei eta poza besteei; harridura batzuei eta normaltasuna besteei... Ipuin ezagun bat laburtzea. Film bat edo liburu bat laburtzea. Ipuin bat asmatzea, aurretik emandako ideia batetik abiatu: zirkotik ihesi egin nahi duen lehoikume bat, lurlean bizi nahi duen arrain bat... Ipuin bat idaztea zenbait ideia-giltzarritatik abiatu. Amets bat kontatzea. Leienda bat idaztea. Fantasiako pertsonaia bati buruzko istorio labur bat idaztea. Pertsonaia ospetsu baten biografia idaztea. Narrazio testu bat idaztea zenbait irudi edo biñetaren laguntzaz. Egunkari bateko orrialde bat idaztea. Irudikatutako marko batean kontestualizaturiko kontakizun bat idaztea: irudika ezazu historiaurrean, erromatarren garaian, etorkizunean, Amazoniako oihanean... bizi zarela. Nola biziko zinateke? Posta elektronikoko mezu bat idaztea.
TESTU DESKRIBATZAI LEAK SORTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Norberak bere burua edo familiakoren bat deskribatzea, alderdi fisikoei eta gustuei erreparaturik. Ipuin ezagun bateko pertsonaia bat deskribatzea. Animalia bat deskribatzea, nolakoa den eta nola bizi den adieraziz. Objektu bat deskribatzea, nolakoa den eta zertarako balio duen adieraziz. Paisaia bat deskribatzea, haren ezaugarriak eta sortzen dituen irudipenak zehaztuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Norberak bere burua edo familiakoren bat deskribatzea, alderdi fisikoei, izaerazkoei, gustuei eta afizioei erreparaturik. Animalia bat deskribatzea, nolakoa den eta nola bizi den adieraziz. Objektu bat deskribatzea, bere ezaugarriak eta erabilgarritasuna zein diren adieraziz. Paisaia bat deskribatzea, haren ezaugarriak eta sortzen dituen irudipenak zehaztuz. Eszena bat deskribatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Pertsonaia deskribatzea, alderdi fisikoei, izaerazkoei, gustu eta zaletasunei eta gizarteari egiten zaion ekarpenari erreparaturik. Objektu bat deskribatzea, bere ezaugarriak eta erabilgarritasuna zein diren adieraziz. Paisaia bat deskribatzea, objektiboki edo subjektiboki. Eszena bat deskribatzea. Monumentu bat, eraikin bat, toki baten barrualdea... deskribatzea.

	LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
JARRAIBIDEAK SORTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Sukaldeko errezeta bat idaztea, urratsak adieraziz. 	<ul style="list-style-type: none"> Sukaldeko errezeta bat idaztea, osagaiak eta jarraibideak adieraziz. Joko baten gainean idaztea, hartarako behar diren materialak eta arauak zehaztuz. Objektu bat egiteko jarraibideak idaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Sukaldeko errezeta bat idaztea, osagaiak, jarraibideak eta produktuaren propietateak adieraziz. Kirol baten gainean idaztea, hartarako behar diren materialak, arauak eta hura praktikatzeko dakartzan onurak adieraziz. Objektu bat egiteko jarraibideak idaztea. Tresna bat, makina bat ibiltzeko jarraibideak idaztea. Tresna bat, makina bat... erabiltzeko jarraibideak idaztea.
AZALPEN TESTUAK SORTZEA		<ul style="list-style-type: none"> Animalia baten biziari buruzko azalpen testu bat idaztea, bizitzaldien arabera (igela baten bizitza...). Animalia bati edo landare bati buruzko testu bat prestatzea, aurretik emandako fitxa bateko datuetatik abiatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Bi animalia edo bi landare bati buruzko azalpen testu bat prestatzea, aurretik emandako fitxetako datuetatik abiatuz eta "konparazioa" erabiliz ideiak lotzeko prozedura modura. Pertsonaia ospetsu bati buruzko azalpen testu bat prestatzea, "hurrenkera kronologikoa" erabiliz ideiak lotzeko prozedura modura. Herrialde edo eskualde bati buruzko artikulua bat idaztea, datuen fitxa batetik abiatuz. Uraren zikloaren edo landareen nutrizioaren moduko prozesu jakin bati buruzko azalpen testu bat prestatzea. Ingurunearen Ezagutza arloan landutako gai bati buruzko azalpen testu bat prestatzea, "arazoa-soluzioa", "saikapena-tipologia" edo "alderaketa" erabiliz ideiak lotzeko irizpide modura. Definizioen bat edo azalpenen bat idaztea.

Atal honetan azaltzen da nola diseinatu den etapako hiru zikloetako bakoitzaren bukaeran ikasleek problemak ebazteko gaitasunaren ebaluazioa.

3.1. Ebaluazio arloaren definizioa

Problemak ebazteko gaitasuntzat hartzen da, matematika ezagutza erabiliz, problemak zenbait egoera eta testuingurutan planteatu, formulatu, ebatzi eta interpretatzeko gaitasuna eta jarrera.

Problemak ebazteko gaitasunaren ebaluazioa hiru dimentsio hauetan oinarritzen da: problemak zein egoeratan edo testuingurutan kokatzen diren; problema horiek ebazteko zer eduki behar den eta horretarako behar diren matematika prozesuak. “Problemen formatuak” ere hartu behar dira kontuan.

Egoerak edo testuinguruak:

Planteatutako problemen egoerak ikaslearen errealitatearen ingurukoak izanen dira eta egoera horietan ikasleek testuinguru horietako esperientzia zuzenak edo zeharkakoak izanen dituzte. Beraz, ikasleen eguneroko bizitzarekin zerikusia izanen dute. Egoera horiek etapan zehar gehituz joanen dira, lehen zikloan hasi eta hirugarreneraino. Ikasleak gai izan behar du problemaren egoera bere buruan irudikatzeko. Egoerak honako hauek izan daitezke: hiru lagun kromoak elkarri aldatzen; erosketak amarekin edo aitarekin egiten; azienda etxaldeak; urtebetetzeak, etab.

Matematika edukiak:

Ikasleek problemak ebazteko erabiliko dituzten matematika edukien artean zikloan zehar Matematika arloan landutako eduki blokeak sartuko dira, hau da, zenbakiei edo kopuruei, neurriari, forma geometrikoei, espazioan duten kokapenari eta informazioaren antolaketari dagozkionak.

Gaitasunen ikusmoldeari erreparatuz gero, edukietan ikasitakoak balio behar du egoerak benetako bizitzan ebazteko. Ildo horretan, problemen ebazpena ahalmenetan oinarritutako ikusmolde honen adibide paradigmaticoa da.

Matematika prozesuak:


Problemak ebazteko ikasleek erabiltzen duten oinarrizko prozesua matematizazioa da, hau da, benetako bizitzako egoera zehatz bat matematikako terminotan ebazterik badela jabetzea. Prozesu hori zenbait alditan gauzatzen da: problema bere testuinguruan ulertu behar da, matematika kontzeptuen arabera irudikatu eta antolatu behar da problema, planteatu den benetako problema matematika problema bilakatu behar da, problema ebatzi behar da eta lortutako emaitza balioetsi behar da.

Problema formatuak:

Problemaren enuntziatuak idatziz aurkeztuko dira, oro har. Hala ere, grafikoak, taulak, irudiak, etab. ere ager daitezke, informazio idatzia osatzeko edo ordezkatzeko.

Honako hau da formaturik ohikoena: lehenik, egoera bat deskribatuko da (horretarako beharrezkoak diren datuak emanen dira) eta, gero, problemaren galdera planteatuko da. Hori hala izanik ere, formatu horrek beste aldaera batzuk izan ditzake: lehenik, beharrezkoak diren datuak baino gehiago ematen dituzten problemak kontuan izan behar dira, ikasleak berak erabaki dezan beharrezkoak diren. Eta, bigarrenik, ageriko galderarik gabeko problemak daude: ikasleak, problemaren egoera eta testuingurua ulertu ondoren, zer galdera egin daitekeen ondorioztatu beharko du.

Ikasleari eskatzen zaion lanari dagokionez, badira beste aukera batzuk: ikasleari eskatzen ahal zaio problema zuzenean ebatz dezan, laguntza gehigarririk gabe; edo enuntziatuaren ulermena errazteko eta irakurriaren ulermeneko akatsak balioesteko, ulermenezko irakurketari dagozkion zenbait galdera egiten ahal zaizkio; edo galderari ildoren bat gehitzen ahal zaio, matematizazio prozesua eta problemaren ebazpena bideratzeko.



3.2. Probaren ezaugarriak

Proban sei problema sartuko dira etapako hiru zikloetako bakoitzean. Matematizazio prozesuaren aldiak askotarikoak izanen dira eta ezberdin balioetsiko dira.

Ziklo bakoitzean planteatutako problemen ezaugarriak honako hauek dira:

Lehen zikloa

Problemak planteatuko dira eta haiek ebazteko gehiketak edo kenketak egin beharko dira. Horretaz gainera, ziklo honetan biderketa edo zatiketa kontzeptuekin loturiko egoera errazak sartuko dira, gehiketen edo kenketekin ebazteko modukoak badira ere.

Argitu behar da gehiketa eta kenketa erako problemak askotarikoak izanen direla eta zailtasun maila bat baino gehiagokoak. Horregatik, ziklo honetan planteatuko diren egoeretan ikasleari gehiketa eta kenketa eragiketen bidez matematizatzen jakitea eskatuko zaio. Egoerak ere bat baino gehiago izanen dira:

- a) Lehenik, egoera hauek izan ditzakegu: ikasleak konturatu beharko du aldaketa gertatu dela, hasierako kopurua handitu edo txikitu delako; aldaketa hori gehiketa edo kenketa egoeren bitartez adierazi beharko du.
- b) Bigarrenik, egoera hauek izan ditzakegu: erkaketa bat planteatuko da (hau beste hau baino gehiago, hau beste hau baino gutxiago...). Ikasleek problema ebazteko kenketa bat nahikoa dela ondorioztatu beharko dute.
- c) Hirugarrenik, egoera hauek izan ditzakegu: berdinketa bat planteatuko da (zenbat behar dugu halakoetara iristeko?). Egoera hauetan ikasleek jabetu beharko dute problemak kenketen bidez ebatzi behar dituztela, kopuruetako bat bestearekin berdintze aldera, gehitu edo kendu beharreko kopurua aurkitzearren.

Bigarren zikloa

Ziklo honetan problemak planteatuko dira eta problema horiek ebazteko gehiketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egin beharko dira. Egoerak planteatuko dira eta egoera horietan eragiketa horietako bat edo eragiketa horietako batzuen konbinazioa erabili beharko da, hurrenkera jakin batean.

Eragiketa kopurua handituz doa eta horrek ikasleari aukera ematen dio benetako bizitzako gero eta egoera problematiko gehiagori aurre egiteko (gero eta matematizazio prozesu landuagoak beharko ditu horretarako).

Lehen zikloan gehiketari eta kenketari dagozkion prozesuak planteatu ziren. Bigarren ziklo honetan, biderketaren eta zatiketaren inguruko askotariko egoerak ere lan daitezke. Honako hauek, adibidez:

- a) Lehenik, egoera hauek ditugu: ikasleak konturatu behar du hasierako egoera batetik hasita kopuru bat zati berdinetan banatu dela eta, horrenbestez, problema zatiketaren bitartez ebazten dela. Egoera hauek ere ager daitezke: bi multzotako osagaiak batzen dira beste multzo bat ateratzeko (azken multzo hori bi multzo horiek batu ondorengoa da).
- b) Beste egoera batzuetan alderantzizko egoera agertuko da, hau da, banaketako datuak alde zurretik jakin ondoren, zer kopuru banatu den aurkitu beharko da. Honako honetan biderketaz baliatuko gara.

- c) Hirugarrenik, erkaketa bat (zenbat aldiz hau beste hau baino gehiago, zenbat aldiz hau beste hau baino gutxiago...) duten egoerak ditugu. Ikasleek ikasi behar dute egoera hauek matematizatzen eta biderketa eta zatiketa eragiketekin ere ebatz daitezkeela ondorioztatu beharko dute.

Horretaz gainera, gerta daiteke deskribatutako egoeretan alde zuzenetik gehiketa edo kenketa bat egin behar izana, problema ebazten jarraitu ahal izateko. Beste batzuetan eragiketa horiek biderketaren edo zatiketaren ondoren egin beharko dira.

Badira beste egoera batzuk, zeinetan bestelako matematizazio prozesu bat erabili beharko den, hots, kontaketa sistematikoa (soluzio bat baino gehiago aurkitu behar da). Geometriako problemaren bat ere jar daiteke.

Hirugarren zikloa

Problema konbinatuak jar daitezke. Problema horiek ebazteko zenbait eragiketa egin beharko da (gehiketa, kenketa, biderketa, zatiketa), hurrenkera jakin batean. Ziklo honetan enuntziatuko datuak sar daitezke, zatikizko zenbakietan edo ehunekoetan emanak. Geometriako problemak, kontaketa sistematikokoak eta indukziozkoak ere jar daitezke.

Eragiketa kopurua handituz doa eta horrek ikasleari aukera ematen dio benetako bizitzako gero eta egoera problematiko gehiagori aurre egiteko (gero eta matematizazio prozesu landuagoak behar dira horretarako). Bigarren ziklorako egindako oharrek hirugarren ziklo honetarako ere balio dute.

3.3. Problemak ebazteko gaitasunaren balioespena

Zaila gertatzen da ondorioztatzea ikasle bat gai den problemak ebazteko proban lortu dituen puntu kopuruari soilik erreparaturik. Problemetan egindako akatsak banan-banan aztertu beharko liriteke, enuntziatua ulertu den edo ez ondorioztatzeke, ebazpenaren lehen aldia planteatzeko gai den edo ez jakiteko, estrategia zuzenak edo okerrak erabiltzen ote dituen jakiteko. Ez da berdina erantzunean huts egitea edo problemaren planteamenduaren lehen mailan. Ikaslearen orientabidearen ikuspuntutik, azterketa mota hau oso baliagarria da problemak ebazten lagundu ahal izateko.

Hori hala izanik ere, kanpo probari begira, komeni da atalase bat ezartzea, oro har, problemak ebazteko helburua lortu den edo ez jakitearren. Atalase maila hau zenbakitan emanen da, problemen eta egindako galderen nortasun eta zailtasun enpirikoaren arabera, itemen entitate eta zailtasun enpirikoaren arabera. Maila onargarria zehazteko orientabide modura-edo, uste izaten da irakurle batek galderen %25etik %35erako tartean egiten duela huts (problema eta galdera motaren gorabehera).

3., 4. eta 5. hobekuntza arloetako helburuak galde-sorten bidez ebaluatuko dira. Ikasleendako, irakasleendako eta gurasoendako galde-sortak prestatuko dira.

a) Ikasleendako galde-sorta

Galderak eginen dira irakurtzeko azturari, landutako balioei eta eskolako lanaren gaineko azturei buruz.

b) Irakasleendako galde-sorta

Barne ebaluazioaren, eskolako giroaren eta balioen gaineko galderak sartuko dira. Ikasleen tutoreak erantzunen ditu galdera horiek, ikuspegi orokor bat izateko zikloaren bukaeran nola egiten ari diren barne ebaluazioak eta aukeraturiko balioak nola lantzen ari diren.

c) Familiendako galde-sorta

Familiendako ere prestatu da galde-sorta bat. Aztertu nahi da zenbateraino inplikatzin diren familiak hobekuntza planaren zenbait alderditan: etxean irakurtzeko azturak, etxeko lanetan laguntzea, ordena eta lanerako azturak, eskolarekin lankidetzan aritzea seme-alaben heziketa, tutoreek jasotzen duten informazio mota, tutoreekin pozik daudenetz, etab.

I. Ulermenezko irakurketa. Proba ereduak


Euskara.

- Lehen zikloa: narrazio testuaren adibidea.
- Bigarren zikloa: narrazio testuaren eta azalpenezkoaren adibidea.
- Hirugarren zikloa: narrazio testua, azalpen testua eta testu etendunaren adibidea.

OLATU HANDIA

Behin batean bazen Hana izeneko neska bat. Hana aitonarekin bizi zen. Aitona oso jakintsua zen. Mendian bizi ziren arroz soroen ondoan.

Soro horiek herritarrenak ziren eta Hanaren aitona zaintzen zituen.



Herria mendiaren azpian zegoen, itsasoaren ondoan. Hanaren etxetik etxeak eta herritarrak txiki-txikiak ikusten ziren.

Egun batean, zerbait gertatu zen. Zerua beltza zegoen. Aitonak olatu handi bat ikusi zuen.

Aitonak Hana deitu zuen:

- Hana etorri!!! Hana etorri!!!
- Zer nahi duzu aitona?
- Ekarri antortxa bat.



Hanak antortxa aitonari eman zion.

- Zer egin behar duzu aitona? - esan zion Hanak.

Aitonak antortxa hartu eta arroz sorora bota zuen.

Su txiki bat piztu zen eta gero sua handi-handia egin zen.




Herritarrek soroa sutan ikusi eta korrika mendira igo ziren.




Mendian Hana eta aitona zeuden, zain.
 – Zer egin duzu aitona?- galdetu zion Hanak

Jendea oso haserre zegoen. Aitona eta Hana inguratu zituzten. Oihuka hasi ziren:

- Txoratuta zaude?
- Gure soroak erre dituzu?
- Baina nork erre ditu gure soroak?



Aitonak lasai-lasai esan zien herritarrei:
 – Nik erre ditut soroak, bai.
 – Zergatik?- galdetu zioten herritarrek haserre.



– Begira itsasoa!! – esan zuen aitonak.
 Orduan, herritarrek olatu handi-handi bat ikusi zuten.



Olatu handiak herria urperatu zuen.
 Gero beste olatu bat iritsi zen, eta beste bat, eta beste bat...
 Den-dena suntsituta gelditu zen.

Aitona oso lasai eta pozik zegoen herriko jendea salbatu zelako.

Herritarrek eskerrak eman zizkieten aitonari:
 – Eskerrik asko aitona!!
 – Zuri esker bizirik gaude – esan zioten herritarrek.
 Eta denak pozik eta alai bizi izan ziren.



Amaiera

Herri ipuina-moldatua

HIZTEGIA:

Jakintsua: asko dakien pertsona

Soro: zelai, belardi, alor

Urperatu: urez estali

Suntsituta: deseginda

IZENA: DATA:

OLATU HANDIA - ARIKETAK
JARRI X ERANTZUN EGOKIAREN PAREAN

1. Aukeratu beste izenburu bat ipuinarentzat?

- Herri handia
- Hana tristea
- Antortxa gizona
- Aitona jakintsua



2. Nola du izena aitonak?

- Reiko
- Hana
- Ez dakigu
- Herritarra

3. Non bizi da Hana?

- Mendiaren azpian
- Arroz soroen ondoan
- Herrian, itsasoaren ondoan
- Herrian

4. Irakurri ondorengo esaldiak eta esan egia edo gezurra diren: E/G (E=egia G=gezurra)

- Neskaren izena aitona da.
- Aitona eta neska itsasoan bizi ziren.
- Neskaren aitonak arroz soroak zaintzen zituen.
- Neskak Hana du izena.

5. Norenak ziren soroak?

- | | |
|--------------------------|----------------------------------|
| <input type="checkbox"/> | Soroak Hanarenak ziren. |
| <input type="checkbox"/> | Soroak herritarrenak ziren. |
| <input type="checkbox"/> | Soroak aitonarenak ziren. |
| <input type="checkbox"/> | Soroak herriko jaunarenak ziren. |

6. Zer ikusi zuen aitonak? (Idatzi esaldi oso bat)

7. Lotu gezi baten bidez aurkakoak: →

mendiaren azpian

itsaso iluna

itsaso beroa

mendi handia

mendi txikia

mendiaren gainean

itsaso hotza

itsaso argia

8. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Aitonak antortxa bat eskatu zion Hanari. |
| <input type="checkbox"/> | Aitonak arroz soroak zaintzen zituen. |
| <input type="checkbox"/> | Olatu handiak herria urperatu zuen. |
| <input type="checkbox"/> | Herritarrek soroa sutan ikusi zuten. |

9. Irakurri ondorengo esaldiak eta esan egia edo gezurra diren: E/G (E=egia G=gezurra)

- | | |
|--------------------------|-------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> | Aitona oso haserre zegoen. |
| <input type="checkbox"/> | Aitona oso lasai zegoen. |
| <input type="checkbox"/> | Olatu handiak herria suntsitu zuen. |
| <input type="checkbox"/> | Olatu handiak aitona ikusi zuen. |

**10. Azkenean aitona pozik zegoen. Zergatik uste duzu aitona pozik zegoela?
(idatzi esaldi oso bat)**



ESKAILERA

Jenderik gabeko herriak asko gustatzen zaizkit. Horregatik, sarritan joaten nintzen Nafarroako herri isil eta hotz hartara.

Haizotz, nire herritik 40 kilometrora dago. Inork ez zekien noiz geratu zen jenderik gabe Haizotz herria. Geroztik, kaleetan ibiltzen zen bizilagun bakarra haizea zen. Haize hotza.

Nik 19 urte ditut; Arturo dut izena, baina, lagunek Artu deitzen didate. Orain dela hamar hilabete gidatzeko karneta atera nuen, eta jai egunetan gehien gustatzen zaidana herri txikiak bisitatzea da, ni bizi naizen hirian zarata besterik ez baitago.

Duela hilabete pare bat gertatu zitzaidana kontatuko dizuet.

Behinola, autoa hartu eta Haizotzera abiatu nintzen. Azken bost kilometroak oinez egin behar izan nituen, bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako. Azkenean, han, urrunean, Haizotzeko kanpandorrea ikusi nuen. Harrizko dorrea zen eta herriaren erdian zegoen, zutik eta harro, bakardade zaindari bezala.

Iritsi nintzen herrira. Txori beltz bat pasatu zen **garrasika** nire buru gainetik, eta dorrearen leiho batetik sartu zen. Gero, bere zulotik begiratu zidan, harriturik bezala.


Herrian zehar buelta bat eman ondoren, dorrerantz jo nuen. Argazki batzuk atera nituen. Gero, atetik sartu nintzen.

Barrua oso ilun zegoen. Atearen ondoan, eskailera biribil baten lehen mailak ikusi nituen eta igotzen hasi nintzen. Eskailera guztiz sendoa zen. Mailak bustita zeuden, eta batzuk oso gastaturik. Une batez, atzera egiteko gogoia etorri zitzaidan, baina gero aurrera segitu nuen.

- “Goitik ikuspegi ederra egongo da, eta argazki pare bat egingo ditut”, pentsatu nuen.

Bost minutuz, lasai ibili nintzen eskaileretan gora. Gutxienez, laurogei maila gainditu nituen. Beste bost minutu eman nituen goranzko bidean. Hala ere, eskailera ez





zen bukatzen. Aurrera segitu nuen beste bost minutuz... eta beste hamar minutuz... Laurehun maila igo nituela kalkulatu nuen eta, hala ere, eskailera gorantz zihoan itzulika. Orduan, beldurtzen hasi nintzen. Arnasa hartu eta presaka igo nituen beste ehun maila. Baino dorrearen bukaera ez zen inon ageri. Larriaren larriaz, beherantz hasi nintzen arineketan. Seiehun, zazpiehun, zortziehun..., baina irteerako atearren arrastorik ez.

Kanpoan iluntzen hasia zen eta beldurra barnerago sartu zitzaidan. Orduan gorantz jo nuen, irteera atzean utzita nengoelakoan. Baina alferrik.

Azkenean, neka-neka eginda, maila batean eseri eta lo gelditu nintzen.

Esnatzerakoan, oreka galdu eta eskaileretan behera erori nintzen **itzulipurdika**. Erori eta erori. Behera eta behera. Azkenean, nire gorputzak egurrezko ate baten kontra jo zuen. Kanpora atera nintzen eta atzerantz begiratzean, Haizotzeko harrizko dorrea ikusi nuen, beti bezala.

Autorainoko bidea, korrika eta itzulipurdika egin nuen. Ez naiz gehiago Haizotzera joango, ezta dorre batean sartuko ere.

(Txinparta irakurgaiak-Zubia)

IZENA: DATA:

ESKAILERA - ARIKETAK
JARRI X ERANTZUN EGOKIAREN PAREAN.

1. Nork kontatzen du ipuin hau?

- | | |
|--------------------------|-----------------------|
| <input type="checkbox"/> | Protagonistak berak |
| <input type="checkbox"/> | Andereño batek |
| <input type="checkbox"/> | Arturoren lagun batek |
| <input type="checkbox"/> | Herriko alkateak |

2. Jai egunetan, Arturok...

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | ...zina joatea du gustuko. |
| <input type="checkbox"/> | ...gidatzeko karneta ateratzeko ikasten du. |
| <input type="checkbox"/> | ...herri txikiak bisitatzen ditu. |
| <input type="checkbox"/> | ...ardiak zaintzen ditu. |

3. Arturo ezin izan da iritsi herrira autoz. Zergatik?

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Gasolina bukatu zaiolako. |
| <input type="checkbox"/> | Bidean harri asko zegoelako. |
| <input type="checkbox"/> | Bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako. |
| <input type="checkbox"/> | Oinez ibiltzea gustatzen zaiolako. |

4. Zergatik uste duzu beldurtzen dela Arturo, dorrearen barruan?

5. Irakurri ondoko esaldiak, eta esan zeinek adierazten duen ipuinaren ideia nagusia

- | | |
|--|---|
| | Arturok, Haizotz herriko dorrean izandako esperientziaren ondorioz, dorre batean ez dela berriz ere inoiz sartuko erabaki du. |
| | Arturok, Haizotzera iristean, txori beltz bat ikusi zuen garrasika. |
| | Arturo neka-neka eginda zegoen eta eskaileretan lo gelditu zen. |
| | Arturo eskaileretan behera erori zen. |

6. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek, denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

- | | |
|--|---|
| | Arturo dorrera sartu zenean, eskaileretan gora lasai ibili zen, hasieran. |
| | Herrira iristean txori beltz bat Arturoren buru gainetik pasatu eta dorrearen leiho batetik sartu zen. Harriturik bezala begiratu zion. |
| | Esnatzerakoan, oreka galdu eta eskaileretan behera erori zen. |
| | Neka-neka eginda zegoen Arturo hainbeste maila igo eta jaitsi, eta eskaileretan eseri eta lo gelditu zen. |

7. Esan egia edo gezurra diren esaldi hauek: E/G

- | | |
|--|---|
| | Haizotz herrian jende gutxi bizi zen. |
| | Haizotz herriko bizilagun bakarra haizea zen. |
| | Herriko dorrea itxita zegoenez, Arturo leihotik sartu zen. |
| | Dorre barrua oso ilun zegoen. |
| | Dorreko eskaileretan, lagun batekin topo egin zuen Arturok. |

8. Nola bukatzen da ipuina? Konta ezazu labur-labur, zure modura

9. Hiztegia. Lotu hitza bere esanahiarekin: —>

Itzulipurdika

- Zikin-zikina eginda etxera itzultzea
- Ipurdia erakustea.
- Buruz behera ematen den buelta

Garrasika

- Ahots indartsuz oihu egitea
- Hegan egitea
- Lasai-lasai jolastea

10. Ipuinaren zati hau lehenaldian kontatzen du protagonistak. Idatz ezazu orainaldian, gaur gertatu balitz bezala

“Behin, autoa hartu eta Haizotzera abiatu nintzen. Azken bost kilometroak oinez egin behar izan nituen, bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako.”

Gaur, autoa hartu. _____

11. Bila ezazu hitz arrotza, eta azpimarra ezazu

Adibidez: Txoria, inurria, txerria, txistorra, txitxarroa. (*Guztiak animaliak dira “txistorra” izan ezik.*)

- Begia, ilea, sudurra, belardia, ahoa, kopeta
- Laranja, sagarra, platanoa, pastela, mahatsa
- Euria, trumioia, kamioia, elurra, haizea
- Garrasika, oihuka, zalapartaka, isilik

12. Emandako testua zein liburutan aurkitu ahal duzu?

<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>

Inguruneko liburuan

Hizkuntzako narraziozko liburu batean


Atlas batean

Komiki liburu batean

ERLEAK

Intsektu langile hauen informazioa duzu testu honetan.
Arretaz irakur ezazu, eta hurrengo orrialdeko galderei erantzun.

Erleak erlauntz izeneko kolonietan bizi dira. Erlauntz bakoitzeko bizilagunek talde edo familia handi bat osatzen dute.



erregina

- Talde guztietan bada erle nagusi bat, erle *erregina*, gainerako guztien ama dena. Bera da erlauntzeko eme emankor bakarra, eta bere zeregina arrautzak *errutea da. Udaberrian eta udan, 2.000 arrautza gutxienez jartzen ditu egunero. Bi urte pasa ondoren, arrautzak jartzeko gaitasuna gutxitzen zaio. Erregina bost edo sei urte bizi daiteke.



erlamandoa

- Erreginaz gain, badira zenbait ar, erlamandoak izenekoak. Erlamandoak oso alferrak dira: horien helburu eta egiteko bakarra erle erregina ernaltzea da, eta ez dira luzaroan bizi izaten. Langileak baino handiagoak dira, eta abdomen zabalagoa daukate; hegoak gorputza baino luzeagoa dituzte.



erle langilea

- Azkenik, erle *langileak* ere, hots, *erle eme antzuak, bizi dira erlauntzean; taldeko gehiengoa osatzen dute. Izenak berak dioenez, erle langileak erlauntzeko lan guzti-guztiaz arduratzen dira: argizaria egiten dute eta abarasketako gelatxoak eraikitzen dituzte; polena biltzen dute; ezta egin eta abarasketan pila-tzen dute; larbak elikatu eta zaintzen dituzte; erlauntza zaindu, desinfektatu eta garbitzen dute. Langile fin eta nekaezinak dira benetan. Zortzi hilabete baino ez omen dira bizitzen.

Argizaria egiteko glandulak daukate sabelaldean. Ezkata txiki batzuk sortzen dituzte eta ondoren masa bat egiten dute ahoarekin, hexagono formako gelatxoak egiteko.

Eztia:



Eztiaren osagai nagusia loreek isuritako nektarreko azukrea da.

Lore mota bakoitzaren nektarrak bere zaporea du, beraz, mota askotako eztiak daude.

Loreen nektar irentsi eta digestioa egin ondoren ezti tronpatik ateratzen dute.

Eztiaren bilketa bera ere kontu handiz egin behar da. Abaraskak zentro berezi batera eramaten dira eta han ateratzen da ezti.

Erleak urtean zehar:


Neguan erlea jan eta lo egoten da, eta ez da atarian asko ikusten, eguzki ederrak jotzen ez badu. Neguko hotzen eraginez, asko hiltzen dira. Negu gogorretan eta ezti gutxiegi uzten zaienean erlauntz osoa desager daiteke.

Udaberri aldera erleen mugimendu handia hasten da. Hanketan polen-pilota horiak nabarmentzen dira, eta erlauntzetan dagoen sartu-irtena handia da. Erreginak arrautzak jartzen ditu, eta uda hastean erlauntz ertain batean 39.000 langile eta 1.900 erlamando izan daitezke. Erlekume gehienak maiatzean eta ekainean jaiotzen dira.

Erle erreginak *errun dituen arrautzetatik jaiotzen diren erletxoak larba zuriak dira, hegorik eta hankarik gabeak eta buru txiki-txikia dutenak.

Udazkenean, erleek gero eta lan gutxiago egiten dute. Egunak laburragoak dira eta gauak freskoagoak. Goizean ere, beraz, beranduago ekiten diote lanari.

Grafikoa



Erleen arteko komunikazioa:

Erleek elkarrekin komunikatzeko sistema edo hizkuntza berezia dute. Gorputzeko mugimenduen bidez, jira-biraka dabiltzala, adierazten dituzte gauzak. Erle batek lore soro bat aurkitzen duenean, erlauntzera itzultzen da gainerako kideei janaria non aurkitu duen esatera eta dantzan hasten da jira-biraka.

Hiztegia:

- * **Erle eme antzuak:** ez dute arrautzarik erruten
- * **Errun:** arrautzak jarri

(Santillana. Irakurgaiak 4: Moldatua eta osatua)

IZENA: DATA:

ERLEAK-ARIKETAK

1. Esan esaldi hauek egia (E) edo gezurra (G) diren

<input type="checkbox"/>	Erlauntzean erregina bakarrik bizi da.
<input type="checkbox"/>	Erlauntzean, erle langileak, erlamandoak eta erle erregina bizi dira.
<input type="checkbox"/>	Erle erregina gainerako guztien ama da.
<input type="checkbox"/>	Erlamandoak luzaro bizi izaten dira.
<input type="checkbox"/>	Erle langileen zeregina arrautzak errutea da.
<input type="checkbox"/>	Erle mandoek erregina ernaltzen dute.
<input type="checkbox"/>	Erle guztiak oso langileak dira.

2. Zein urtarotan gertatzen dira? Lotu gezienez bidez →

<ul style="list-style-type: none">• Ia-ia ez da erlerik ikusten, jan eta lo besterik ez dute egiten.	Udaberrian
<ul style="list-style-type: none">• Erlauntz ertain batean 39.000 langile eta 1.900 erlamando izan daitezke.	Udan
<ul style="list-style-type: none">• Erlauntzetan mugimendu handia dago. Hanketan polena dutela ikusten dira erleak.	Udazkenean
<ul style="list-style-type: none">• Erleek gero eta lan gutxiago egiten dute, goizean berandu hasten baitira lanean.	Neguan

3. Erlazionatu esaldi hauek grafikoan agertzen diren zenbakiekin:

<input type="checkbox"/>	Hanka batzuekin polena hartzen dute.
<input type="checkbox"/>	Hauekin antenak garbitzen dituzte.
<input type="checkbox"/>	Gorputza estigma edo segmentuetan zatituta dute.
<input type="checkbox"/>	Loreen nektar irentsi eta digestioa egin ondoren, ezta ateratzen dute.

4. Zer adierazten dute erleek gorputzaren mugimenduaren bidez?

5. Irakurri ondoko esaldiak, eta esan zeri buruz hitz egiten den erleen testuan. Aukeratu egokia dena

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Erleei buruzko ipuin bat da. |
| <input type="checkbox"/> | Erleei buruzko informazioa zabala ematen digu. |
| <input type="checkbox"/> | Erle erreginaren garrantziaz hitz egiten digu. |
| <input type="checkbox"/> | Intsektuek udaberrian zer egiten duten azaltzen du. |

6. Erleek udaberrian eta udan egiten dute ezti gehiena. Zergatik ote da? Azaldu zure modura.

7. Aukera ezazu izenburu egokia ondoko paragraforako

- **Erle madarikatuak!**
- **Erleen ohiturak**
- **Erle erregina**
- **Erle motak**

IZENBURUA:

“Talde guztietan bada erle nagusi bat, erle erregina, gainerako guztien ama dena. Bera da erlauntzeko eme emankor bakarra, eta bere zeregina arrautzak errutea da. Udaberrian eta udan, 2.000 arrautza gutxienez jartzen ditu egunero. Bi urte pasa ondoren, arrautzak jartzeko gaitasuna gutxitzen zaio. Erregina bost edo sei urte bizi daiteke.”

8. Ondoko testu honetan puntuazio markak ahaztu zaizkie

: , .

Jar itzazu behar diren tokietan.

- Erle familia edo talde bakoitzean hiru motatako erleak daude erregina erlamandoak eta erle langileak
- Erle langileek erlauntzeko lan guztia egiten dute polena bildu erlauntza garbitu ezia egin larbak elikatu eta zaindu

9. Hona hemen ERLEA-rekin zerikusia duen hitz zerrenda

erlamandoa	hegoak	eztia
tronpa	argizaria	erle langileak
erregina	antenak	arraztzak errun

Multzoka itzazu lau atal hauetan idatziz.

Gorputzaren zatiak:

.....

Erle motak:

.....

ERLEA

Erreginaren zereginak:

.....

Zer ematen digute:

.....

10. Osatu esaldi hauek azpimarratutako hitzen antonimoak erabiliz

Erle <u>langilea</u>	Erle (alferra-arduratsua)
Erlauntz <u>txukuna</u>	Erlauntz..... (garbia-zikina)
<u>Itxi</u> erlauntza!erlauntza! (garbitu-ireki)
Udaberri <u>hotza</u>	Udaberri..... (epela-beroa)
Eguna <u>luzatzen</u>	Eguna..... (iluntzen-laburtzen)
Ezti gozoa <u>erosi</u>	Ezti gozoa..... (aurkitu-saldu)



EUSKALDUN BAT MARTEN

Iñaki Zubeldia

Zarauzko kai txikian haurrak jolasean eta igeri zebiltzan. Arratsalde argia zen, eguzkiz betea. Itsasoa bare-bare zegoen, txalupa zuri, gorri, urdin eta orlegien tantoz ziprztindua. Unai, ume azkar eta jatorra, beste umeen artean zebilen murgilka eta igeri. Hamar urte zituen Unaik eta benetan ausarta eta kementsua zen.

Arratsalde baketsu hartan, une batean soinu berezi bat entzun zen Santa Barbara mendi gainean, eta geroxeago argi distiratsu eta itsugarri bat jaitsi zen goitik behera.

Lehenbizi, haurrak izutu egin ziren, baina ondo begiratu ondoren, ovni eder bat ikusi zuten Santa Barbara gainean.

Hegazkin hura ikusteko gogoari ezin eutsiz, Zarauzko haurrak saltoka eta arinka joan ziren aldapan gora. Tontorrera igo bezain laster, gizon txiki-txikiak ikusi zituzten: Marteko gizonak ziren, bi urteko edozein haur baino txikiagoak.

Zarauzko haurrak ikusterakoan, beldurtu egin ziren martetarrak, Lurrean hain gizon handiak aurkitu zituztelakoan. Benetako gizonak azaldu izan balira, laster hanka egingo zuketzen beren Marte aldera.

Hamar gizon ziren hegazkinetik jaitsi eta haurrengana inguratu zirenak. Eta haietako batek hurrei hitz egin zien:

- Mijail jolko xirono ahahu klunki.

Eta Zarauzko haurrek elkarri begiratzen zioten eta hitzik ere ez zuten esaten harriturik.

Orduan beste martetar batek hitz egin zuen:

- Tziboski mirurkajaine milmi parotxo...

Haur haiek ez zuten ezertxo ere ulertzen, eta ez zekiten zer egin.

Halako batean, Unai irten haur taldetik aurrera eta honela esan zien:

- Kaixo, mutiltxoak, arratsalde on! Zuetako inork ez al daki euskaraz?


Martetarrek hamar hizkuntza ezberdinetako gizonak bidali zituzten, eta zorionez haietako batek euskara bazekien. Laster asko erantzun zion Unairi:

– Arratsalde on, lurreko gizon handiak! Nik euskaraz egiten dut zuek bezala eta Zorrotz dut izena. Gu Martekoak gara eta bake asmotan etorri gara, zuekin bakea eta adiskidetasuna izateko gogoz. Gure Marte oso ederra da, baina ikusten dudanez zuen lurralde hau ederragoa da. Benetan toki zoragarrian bizi zarete.

Unaik, pozez gainezka, honela erantzun zion:

– Gu zuen lagunak gara, Zorrotz, eta gure artean bakea izango duzue. Eta zerbaiten beharrik baduzue, eskatu, eta guk ahal dugun neurrian lagunduko dizuegu.

– Hamaika esker zuei, borondate onagatik, baina oraingo honetan proban etorri gara, eta hemengo gauza batzuk bildu eta Martera eraman behar ditugu laster.



Zarauzko haur talde hark pozik lagundu zien martetarrei adarrak, hostoak, igaliak, lurra eta harri koskorak biltzen. Eta lana bukatutakoan, haur guztiak hegazkina ikusten eta miatzen saiatu ziren. Bai polita zela barrendik eta kanpotik!

Hegazkina ikusi ondoren, Zorrotzek -Marteko euskaldunak- honela hitz egin zien:

– Oraingo zuei gure lana bukatu da eta Martera goaz. Baina zuetako bat pozik eramango genuke gurekin. Han ahal den ondoen urte bete pasarazten saiatuko ginateke. Ba al da inor gurekin joan nahi duenik?...

Zorrotz txikiaren galdera erantzunik gabe geratu zen. Haur guztiak elkarri begira jarri ziren. Hegazkina polita zen eta han oso ondo ibiliko zen ortzian zehar, baina gurasoengandik urrutira joan beharrak beldurtu egiten zituen.

Baina, halako batean, Unai beti ausart eta adoretu, honela mintzatu zen isiltasun astun hura hautsiz:

– Ni joango naiz zuekin, baina hemendik urte betera berriro etortzekotan eh!, gero nire etxean bizi nahi dut eta.

– Bai, gizona, bai, han urte bete ederki pasako duzu eta gero lur eder honetara ekarriko zaitugu.



EUSKALDUN BAT MARTEN - ARIKETAK:

1. Nork kontatzen du ipuin hau? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

<input type="checkbox"/>	Zorrotzek
<input type="checkbox"/>	Unaik
<input type="checkbox"/>	Narratzaileak
<input type="checkbox"/>	Hegazkinak

2. Zertan ari ziren Zarauzko kaian haurrak? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

<input type="checkbox"/>	Zinera joaten
<input type="checkbox"/>	Mendira igotzen
<input type="checkbox"/>	Jolasean eta igeriketan
<input type="checkbox"/>	Arrantzan eta kaniketan

3. Zergatik beldurtu ziren martetarrak Zarauzko haurrak ikusterakoan? (Labur idatzi)

4. Irakurri ondorengo hiru esaldiak eta esan zeinek adierazten duen hobekien ipuinaren ideia nagusia: (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | • Unai mutiko ausarta da eta Martetarren hizkuntza menderatzen duenez haiekin joaten da. |
| <input type="checkbox"/> | • Martetar batzuk heltzen dira Zarautzera, eta Unai gonbidatzen dute haiekin Martera joatera. |
| <input type="checkbox"/> | • Unaik uste du Marte Lurra baino politagoa dela eta hara joaten da bisitan. |

5. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | • Arratsalde on, lurreko gizon handiak! |
| <input type="checkbox"/> | • Oraingo gure lana bukatu da eta Martera goaz. |
| <input type="checkbox"/> | • Une batean soinu berezi bat entzun zen Santa Barbara mendi gainean. |
| <input type="checkbox"/> | • Hamar gizon ziren hegazkinetatik jaitsi eta haurrengana inguratu zirenak. |

6. Zorrotzek honela dio: "...bake asmotan etorri gara..."

Zer esan nahi du horrek? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Herrian zegoen gerrarekin amaitu nahi zutela. |
| <input type="checkbox"/> | Bake izeneko emakumea ekartzen zutela haiekin. |
| <input type="checkbox"/> | Inori kalte egiteko asmorik ez zutela. |
| <input type="checkbox"/> | Martetik diru asko ekartzen zutela. |

7. Zer kontatzen da istorio honetan? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Zarauzko herria deskribatzen du zehatz-mehatz. |
| <input type="checkbox"/> | Martetarrak Lurrera zergatik etorri diren argudiatzen du . |
| <input type="checkbox"/> | Haurren eta martetarren arteko topaketa nola ematen den kontatzen du . |
| <input type="checkbox"/> | Martetarrek eraman behar dituzten gauzak zerrendatzen ditu . |

8. Deskribatu Unaik, Martera joateko ovnian edo hegazkinean sartu zenean, izango zituen kontrajarritako bi sentimendu, hau da, bata bestearen aurkakoa

1. _____

2. _____

9. Esaldi hauetan azpimarraturik dagoen hitzaren sinonimoa eman

– Itsasoa bare-bare zegoen..... → _____

– Haurrak izutu egin ziren..... → _____

– Oraingo gure lana bukatu da..... → _____

– Urtebete ederki pasako duzu..... → _____

10. Idatz ezazu hurrengo paragrafoa orainaldian eta geroaldian

“Lehenbizi, haurrak izutu egin ziren, baina ondo begiratu ondoren, *ovni* eder bat ikusi zuten Santa Barbara gainean.”

ORAINALDIA:

GEROALDIA:

11. Unai martetarrei ea inork euskaraz egiten zuen galdetu zien. Horietako batek bazekien. Horrek, “Laster asko erantzun zion Unairi” Esaldi hori berdin geldituko litzateke LASTER ASKO jarri ordez hauetako bat jarrita: (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

<input type="checkbox"/>	Modu horretan
<input type="checkbox"/>	Berehala
<input type="checkbox"/>	Une hartan
<input type="checkbox"/>	Garai honetan

JOANNE KATHLEEN ROWLING



Joanne Kathleen Rowling (Ingalaterra 1965), Harry Potter, liburu bildumaren idazlea da. Ondoko kontakizunean, bere bizitzako zertzeladak kontatzen ditu, besteak beste, Harryren abenturak nola bururatu zitzaizkion:

“Aita eta ama Londresekoak nituen. Hemezortzi urte zituztela ezagutu zuten elkar, Londrestik Eskoziara trenez zihoazelarik. Militarrak ziren biak. Tren horretan amak hotz zegoela esan zuen, eta aitak bere zamarra partekatzeke proposatu zion. Hurrengo urtean, hemeretzi urterekin, ezkondu egin ziren.

Armada utzi zuten biek eta Ingalaterrako mendebaldean dagoen Bristol hirira joan ziren bizitzera. Amak hogeitau urte zituela jaio nintzen ni. Neskatiko potoloa nintzen ni.

Diana ahizpa urte bat eta hamaika hilabete geroago jaio zen. Nire lehenengo oroitzapena egun hartakoa da. Sukaldean nintzen, plastilina puska batekin jolasean, eta aita, arras urduri, gora eta behera ari zen, amaren gelara behin eta berriro sartu eta handik irteten, ama ahizpaz erditzen zen bitartean. Seguru dakit hori guztia ez dela nire asmazio bat, askoz geroago amarekin egiaztatu baintuen xehetasunak.

Di ahizpak oso iluna zuen ilea, ia beltza, eta hala segitzen du izaten, eta begi gaztinkara ilunak, amaren antzera. Ni baino askoz politagoa zen, eta hala segitzen du. Ordainetan edo –nik uste–, gurasoek erabaki zuten nik “azkarra” izan behar nuela.

Lau urte nituela, beste etxe batera aldatu ginen, hiri berean. Etxeak ESKAILERAK zituen. Dik eta biok drama bat antzezten genuen haietan, behin eta berriro, halakoa non gutako bat zintzilik gelditzen baitzen maila gorenetik, eta, besteari salbatzeko erreguka aritu ostean, heriotzarantz amiltzen baitzen. Izugarri dibertigarria iruditzen zitzaigun hura.

Elkarri mokoka aritzen ez ginen denbora apurrean, Di eta biok munduko lagunik minenak ginen. Gure kalean gure adineko anitz haur bizi ziren. Haien artean baziren anai-arreba batzuk, Potter abizena zutenak, eta nik gustuko nuen abizen hura. Anaiak harri bat bota zion behin Diri, eta nik, erantzun gisara, kolpe gogor bat eman nion, plastikozko ezpata batekin –ni bainintzen Diri gauzak jaurtitzeko baimenduta zegoen pertsona bakarra–.

Nire gurasoek betidanik zuten amets hiritik landara bizitzera joatea, eta ene bederatzigarren urtebetetzearen inguruan azkeneko aldiz lekualdatu ginen, Galesera.

Etkez aldatu eta kasik aldi berean hil zen ene amonarik kutunena, Kathleen. Dudarik gabe, nire bizitzako lehen galera hark eragina izan zuen eskola berriaz jaso nuen iritzian. Izan ere, ez zitzaidan batere gustatu.



Nerabe nintzela gertatu zitzaidan gauzarik okerrrena ama gaixotu izana izan zen. Hamabost urte nituela, esklerosi anizkuna diagnostikatu zioten, hau da, nerbio-sistema zentralaren gaitz bat. Amak ez zuen zorterik izan, eta pixkanaka-pixkanaka okerrera egin zuen.

1983an eskola utzi eta Unibertsitatera joan nintzen. Frantsesa ikasi nuen han, eta hori oker bat izan zen, amore eman bainuen, gurasoek hizkuntza moderno “probetxuzkoak” ikas nitzan premiatu nindutenean. Horrek, hala ere, alde on bat izan zuen: Frantsesa ikasita, ikasturte oso bat eman ahal izan nuen Parisen bizitzen.

Behin Londresera itzultzen nintzela, jendez mukuru zegoen tren batean, otu zitzaidan Harry Potterren ideia.

Eseri eta lau ordu eman nuen pentsatzen –trenaren atzerapena zela eta–, eta xehetasun guztiak sortu ziren nire garunean, eta poliki-poliki ile beltzarana eta betaurrekoak dituen gaztetxo mehar hura, zeinak aztia zela ere ez baitzekien, benetakoa bilakatu zitzaidan.

Gau hartan berean hasi nintzen idazten, nahiz hasierako orri haiek antza izpirik ez eduki, bukaerako liburuarekin. Hurrengo egunetan, Harryk Hogwartsen jasoko zuen heziketa osoari buruzko ideiak burutu nituen, ez bakarrik lehen ikasturtearen ingurukoak.

Orduan, 1990eko abenduan, zerbait gertatu zen, nire mundua eta Harryrena betirako aldatu zituena: ama hil zitzaidan. Garai izugarri makurra izan zen hura. Amak berrogeita bost urte baino ez zuen, eta inoiz ez nuen pentsatu hain gazte hilko zenik.

Bederatzi hilabete geroago, Portugalera bidaiatu nuen, ingeles irakasle aritzera. Harry Potterri buruzko eskuizkribu gero eta potoloagoa eramane nirekin. Ama hil zenetik arras eraldatua zen nobela. Harez geroztik, Harryk bere guraso hilenganako zeuzkan sentimenduak askoz sakonagoak bilakatu ziren, benetakoagoak.

Espero nuen Portugaletik bueltan liburu bukatua eramanen nuela besapean. Izan ere, beste zerbait hobea eraman nuen: alaba. Gizon portugaldar bat ezagutu eta harekin ezkondu nintzen, eta, ezkontzak porrot egin bazuen ere, nire bizitzako gauzarik hoherena eman zidan. Jessica eta biok 1994ko Eguberritarako iritsi ginen Edinburgora, Di ahizpa han baitzegoen lanean.

Berriro ere irakasle aritzeko asmoa nuen, eta banekien liburua ez banuen bizkor bukatzen, ez nuela agian inoiz egingo.

Horregatik jo eta ke hasi nintzen lanean, liburua bukatzeko, eta, bederen, argitaratzen saiatzeko erabaki irmoa hartuta.

Azkenean, bukatu nuen. Lehen hiru kapituluak plastikozko zorro dotore batean sartu eta literatur agente bati igorri nion.

Nire literatur-agentek, urtebete eman zuen argitaratzaile baten bila. Argitaletxe anitzek atzera itzuli zioten nire lana. Baina, azkenik, 1996ko abuztuan, agenteak telefonoz deitu zidan, Bloomsburyk “eskaintza bat egina” zidala esateko. Aditutakoa ezin sinetsirik nengoen. Telefonoa eskegi eta oihuka eta saltoka hasi nintzen. Gogoan dut Jessicak izuturik begiratzen zidala, bere aulkitxoan afaltzen ari zela.

Segur asko badakizue zer gertatu zen gero”.

(J. K. Rowling. Autobiografia. Itzulpena: Inma Errea Cleix)



Hiztegia:

Erditzen: jaiotzen, haurra izan

Nerabe: gaztetxo

Esklerosi anizkuna: gaixotasun bat

Azti: asmatzaile, sorgin

Eskuizkribu: eskuidatzi

Erabaki irmoa: erabaki sendoa

Argudiatu: arrazoitu

Sustatzea: indartzea, bultzatzea



HARRY POTTEREN LIBURUAK EUSKARAZ

Orain arte sei dira J.K. Rowling idazleak argitaratu dituen Harry Potteren liburuak. Horietako bost argitaratu dira dagoeneko euskaraz:

1. HARRY POTTER ETA SORGIN HARRIA

Hasierako liburua da eta horretan Harry Hogwarts eskolara helduko da eta aztikeriak ikasten hasiko da.

2. HARRY POTTER ETA SEKRETUEN GANBERA

Harry Potter etxean dago, bigarren ikasturtea noiz hasiko zain. Larri dago Harry gaixoa... Baina bere lagun Ron Weasley laguntzera etorriko zaio auto hegalaria batean eta... Harryk bigarren urtea du Hogwartzen, eta bigarren hau ere aurreko bezain mugitua, arriskuz betea eta ziragarria izango da.

3. HARRY POTTER ETA AZKABANGO PRESOA

Harry Potter, bere adiskide onenak diren Ronekin eta Hermionerekin batera, hirugarren ikasturtea hastera doa Hogwartzen. Baina Hogwartsera iristen denean, urduritasuna eta egonezina aurkituko ditu han. Hiltzaile bihozgabe bat aske dabil, eta Azkabango espetxeko zaintzaile beldurgarriak eskola inguruan dabilta orain hiltzailearen bila...

4. HARRY POTTER ETA SUAREN KOPA

Laugarren ikasturtea da Hogwartzen. Sorginkeria berriak izango ditu ikasteko, quidditchean ere jokatu beharko du, eta oraindik badu zer miatu eta aztertu Hogwartseko gazteluan. Baina Harryk kontuz ibili beharko du, han ustekabeko arriskuak baitaizka zain...



5. HARRY POTTER ETA FENIXAREN ORDENA

Harryk eta bere lagunek bosgarren ikasturtea hasi behar dute Hogwartseko Azti eta Sorgin eskolan. Gazte nerabe bihurtu dira. Maitasunak, adiskidetasunak eta gaztetasunean lehentasuna duten gaiek hartu dute protagonismoa liburu honetan.



(Elkar argitaletxea. Moldatua)

**JOANNE KATHLEEN ROWLING
ARIKETAK**

1. Zenbat urte ditu gaur egun Joanne Kathleen Rowlingek?

.....urte ditu Joanne Kathleen Rowlingek

2. Non jaioa zen Diana, Joanneren ahizpa? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|--------------|
| <input type="checkbox"/> | Denda batean |
| <input type="checkbox"/> | Ospitalean |
| <input type="checkbox"/> | Etxean |
| <input type="checkbox"/> | Eskolan |

3. Nor edo zer da “Bloomsbury”? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|----------------|
| <input type="checkbox"/> | Idazlea |
| <input type="checkbox"/> | Auzokidea |
| <input type="checkbox"/> | Liburu-agentea |
| <input type="checkbox"/> | Argitaletxea |

4. Irakurri ondoko hiru esaldiak eta esan zeinek adierazten duen hobekien Harry Potterren liburu bildumaren ideia nagusia (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | <ul style="list-style-type: none">• Hiltzaile bihozgabe batek ihes egin du Azkabango espetxetik, eta aske dabil Hogwartsen inguruetan. |
| <input type="checkbox"/> | <ul style="list-style-type: none">• Ile beltzarana eta betaurrekoak dituen gaztetxo bat benetako azti bilakatuko da, Aztien eta Sorginen eskolan ikasita. |
| <input type="checkbox"/> | <ul style="list-style-type: none">• Ron eta Hermione Harryren benetako lagunak dira, eta beti arituko dira horren alde. |

5. Esan esaldi hauek egia edo gezurra diren: (E/G)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Joanneren gurasoek Bristolera zihoan trenean ezagutu zuten elkar. |
| <input type="checkbox"/> | Joanneren lehenengo oroitzapena ahizpa jaio zen egunekoa da. |
| <input type="checkbox"/> | Joannek eta Dianak etxeko eskailerak gorrotatzen zituzten. |
| <input type="checkbox"/> | Argitaletxeek berehala argitaratu zuten Harry Potterren liburua. |
| <input type="checkbox"/> | Joanneren ama berrogeita bost urte zituela hil zen. |

6. Ordena itzazu pasarte hauek, denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Portugalera bidaiatu nuen, ingeles irakasle aritzera. |
| <input type="checkbox"/> | Aita eta ama Londreskoak nituen. |
| <input type="checkbox"/> | Argitaletxe anitzek atzera itzuli zioten nire lana. |
| <input type="checkbox"/> | Di ahizpak oso iluna zuen ilea, ia beltza. |

7. Deskribatu, txikitan, nolakoa zen Joanneren eta Dianaren arteko harremana. Idatzi Joannek azaltzen dituen kontrajarritako bi sentimendu, hau da, bata bestearen aurkakoa.

1. _____

2. _____

8. Joannek berak nahi zuena ikasi zuen Unibertsitatean? (Erantzuna arrazoitu)

9. “Atzizkiak” hitzen bukaeran doaz, eta lanbideak, pertsonen ezaugarriak, propietateak, tokiak, eta abar adierazteko balio dute. Testuan badira batzuk (-tasun, -tzaile, -garri, -lari, -keria, -kide). Idatz itzazu hirugarren orrian agertzen diren bost horietakoak.

10. Irakurri duzun testu hau interneten aurkitu dugu. Zein da testu honen helburu nagusia? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Telebista programa bat iragartzea |
| <input type="checkbox"/> | Idazlearen bizitza eta lana ezagutaraztea |
| <input type="checkbox"/> | Pelikula baten berri ematea |
| <input type="checkbox"/> | Liburuen salmentak sustatzea |

11. Joannek idatzi dituen Harry Potterren liburuak ikusita, zeren arabera eman dituzte argitara? Zer ordena jarraitzen dute? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

- | | |
|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | Harry Potterren adin diferenteen arabera (jaiotza, haurtzaroa, nerabezaroa...). |
| <input type="checkbox"/> | Aztien eta Sorginen Eskolako ikasturteen arabera. |
| <input type="checkbox"/> | Harry Potterren abenturen eta pasadizoen arabera. |
| <input type="checkbox"/> | Aztien eta Sorginen Eskolako ikasgaiak eta irakasleen arabera. |

Hemen duzu Zientziaren kutxaGuneaz jakin nahi duzun guztia.

MUSEOAREN JARDUERAK


- Erakustaldiak eta esperimenduak zuzenean.
- Bisitak Astronomia Behatokia (erreserba egin behar da alde zuzentzat).
- Ikastaroak eta txangoak.

MUSEOKO ORDUTEGIA

- **Asteartetik ostiralera:** 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara).
- **Larunbat, igande eta jaiegunetan:** 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara).
- **Itxita egongo da astelehenetan (uztaileko eta abuztuko astelehenetan izan ezik), baita beste egun hauetan ere:** Urtarrilaren 1ean eta 20an eta abenduaren 25ean.

PLANETARIUMAREN ORDUTEGIA

- **Asteartetik ostiralera:** 18:00etan
- **Larunbat, igande eta jaiegunetan:** 11:30ean - 12:15ean - 13:30ean - 16:00etan - 17:00etan - 18:00etan (udan 19:00etan ere bai).



2006ko PREZIOAK	OROKORRA	MURRIZTUA
MUSEOA	7 euro	5 euro
PLANETARIUM	2,5 euro	2 euro

TARIFA BEREZIAK

- Tarifa murriztua 18 urtetik beherakoentzat, 65 urtetik gorakoentzat, familia ugariarentzat eta 15 pertsona baino gehiagoko talde antolatuentzat (erreserba egin behar da alde zuzentzat).
- Gainera, tarifa bereziak dituzte Urrezko Txartela eta Gaztekutxa Txartela dutenek.

Informazio gehiago nahi baduzu,
kontsultatu www.miramon.org web orria
edo bidali mezu bat kutxaespacio@kutxa.es helbidera.

TELEFONOAK

943 012 478 informazioa
943 012 917 erreserbak

Mikeletegi pasealekua, 43-45 DONOSTIA

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
JARRI X ERANTZUN EGOKIAREN PAREAN EDO LABUR ERANTZUN

1. Norentzako dago idatzita testu hau?

- Donostiako biztanleentzat
- Kutxagunea bisitatu nahi dutenentzat
- Lehen Hezkuntzako ikasleentzat
- Kutxaguneko 65 urtetik gorakoentzat

2. Zein da testu honen asmoa?

- Donostiako garraioari buruzko informazioa ematea
- Museoko gauzak saltzea
- Esperimentu bat egiteko pausoak adieraztea
- Informazioa ematea jendea toki horretara erakartzeko

3. Aipatu testuan erabili diren 3 baliabide jendearen arreta erakartzeko.

4. Zein da egia?

<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>

Asteartetik ostiralera museoa arratsaldez bakarrik irekitzen da.

Udako jaiegunetan museoa arratsaldeko zazpietan ixten da.

Uztaileko eta abuztuko astelehenetan museoa zabalik dago.

Planetarioan egunero sei emanaldi daude.

5. Eskolatik museora 20 lagun bazoazte, zenbat ordaindu beharko duzue sartzeko osotara?

6. Bitan aipatzen da erreserba egin behar dela aldez aurretik. Aipatu bi kasu horiek.

7. Astronomia behatokia...

<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>

Miramonen dago.

Amaran dago.

Alde Zaharrean dago.

Erdialdean dago.

8. Zure ustez, beharrezko informazioa ematen al da testuan? Eman hiru arrazoi.

9. Zientziaren Kutxaguneari buruzko informazio gehiago lortzeko hiru modu aipatzen dira testuan. Zeintzuk dira horiek?

Modelos de pruebas de lectura comprensiva (Lengua Castellana)

- Segundo ciclo: ejemplo de texto narrativo y expositivo
- Tercer ciclo: ejemplo de texto narrativo, expositivo e instructivo (*)

(*) En el CD-Rom “La comprensión lectora en las lenguas del currículo” se pueden encontrar más ejemplos.

TOMÁS APRENDE A LEER (*)

Jo Ellen Bogart, Laura Fernández & Rick Jacobson, Barcelona, Editorial Juventud, 1998



Tomás sabía construir una valla de troncos y sabía hacer una tortilla, pero no sabía leer. Tomás sabía hacer una mesa de un árbol y sabía hacer un dulce jarabe de su savia, pero no sabía leer. Tomás sabía cómo cuidar los tomates, los pepinos y las mazorcas de maíz para que crecieran hermosos, pero no sabía leer. Conocía las huellas de los animales y las señales de las estaciones, pero no conocía las letras y las palabras.

—Quiero aprender a leer –le dijo a su hermano José.

—Eres un hombre mayor, Tomás –le respondió José–. Tienes hijos y nietos y sabes hacer casi de todo.

—Pero no sé leer –insistió Tomás.

—Bueno –dijo José–. Pues aprende.

—Quiero aprender a leer –le dijo a Julia, su mujer.

—Eres maravilloso tal como eres –contestó Julia mientras le acariciaba la barba.

—Pero se puede ser aún mejor –replicó él.

—Pues aprende –le dijo su mujer, sonriéndole por encima de su labor de punto–. Así podrás leerme a mí.

—Quiero aprender a leer –le dijo Tomás a su viejo perro pastor.

El perro lo miró, y luego se echó en la alfombra, a los pies de Tomás. Tomás pensaba: “¿Cómo puedo aprender a leer? Mi hermano no puede enseñarme. Mi mujer no puede enseñarme. Este viejo perro no puede enseñarme. ¿Cómo aprenderé?”.

Tomás estuvo pensándolo un buen rato y al final sonrió.

A la mañana siguiente, Tomás se levantó al salir el sol e hizo el trabajo de la granja. Luego se lavó la cara y las manos, se peinó el pelo y la barba, y se puso su camisa prefe-

(*) Texto y actividades extraídos del CD-Rom “La comprensión lectora en las lenguas del currículo”.

rida. Desayunó unas tostadas y se preparó un bocadillo para llevarselo. Después se despidió de Julia con un beso y salió de casa.

Encontró a un grupo de niños y niñas que también iban por el camino sombreado por los árboles. Cuando los niños entraron en la escuela, Tomás también entró. La señora García sonrió al verlo.

—Quiero aprender a leer –le dijo.

Ella le indicó un asiento libre y Tomás se sentó.

—Niños y niñas –dijo la maestra-, hoy tenemos un nuevo alumno.

Tomás empezó por aprender las letras y sus sonidos. Algunos niños le ayudaron. En el recreo, se sentó debajo de un árbol y enseñó a unos niños y niñas a imitar el canto del carbonero y el graznido de la oca, y les contó historias.

Pronto Tomás fue aprendiendo palabras. Todos los días copiaba los ejercicios en su cuaderno con esmero. A Tomás le gustaba mucho que la maestra o los niños mayores leyeran en voz alta en clase. A veces dibujaba mientras escuchaba.

Tomás estaba aprendiendo, pero también estaba enseñando. Enseñó a los niños a hacer tallas de madera con la navaja. Y a la maestra le enseñó a hacer mermelada de manzana y a silbar con los dientes.

Al cabo de un tiempo, Tomás ya iba juntando palabras y escribiendo sus propias historias. Escribió sobre cómo se salvó una pequeña ardilla. Escribió sobre el baño en el río. Escribió sobre el día en que conoció a su mujer. Julia miraba cómo Tomás hacía sus ejercicios en la mesa después de cenar.

—¿Cuándo vas a leerme algo? – le preguntó.

—Cuando llegue el momento –le contestó.


Un día, Tomás se llevó a casa un libro de poemas de la escuela. Los poemas trataban de árboles y nubes y ríos y ciervos ligeros. Tomás lo escondió debajo de su almohada. Aquella noche, cuando Julia y él se fueron a la cama, sacó el libro.

—Escucha –le dijo.

Leyó un poema sobre suaves pétalos y dulce perfume de rosas. Leyó un poema sobre olas que rompían en la orilla del mar. Leyó un poema de amor. Julia miró a su marido a los ojos.

—¡Oh, Tomás! –dijo-. Quiero aprender a leer.

—Mañana, después del desayuno, cariño –le respondió sonriendo. Y apagó la luz.



CONTESTA A LAS SIGUIENTES PREGUNTAS

1. ¿Dónde se desarrolla la historia?

	En el campo.
	En el pueblo de Tomás.
	En la escuela.
	En un barrio de las afueras.

2. a) ¿Cuáles son los personajes que intervienen?

b) ¿Quién era la señora García?

	La mujer de Tomás.
	La hija de Tomás.
	La maestra.
	La hermana de Julia.

3. Numera estas frases siguiendo el orden de la historia que has leído.

	Encontró a un grupo de niños y niñas.
	Eres un hombre mayor, Tomás.
	Leyó un poema sobre suaves pétalos.
	Tomás empezó por aprender las letras y sus sonidos.

4. ¿Qué razones le ofrecen a Tomás para que abandone la idea de aprender a leer? Señala las correctas.

<input type="checkbox"/>	Es un hombre mayor.
<input type="checkbox"/>	No hay sitio en la escuela.
<input type="checkbox"/>	Es maravilloso como es.
<input type="checkbox"/>	Todavía no ha pagado la matrícula.

5. Enumera las cosas que sabía hacer Tomás.

6. ¿Por qué se dice que Tomás estaba aprendiendo pero también enseñando?

<input type="checkbox"/>	Porque enseñó a leer a su hermano.
<input type="checkbox"/>	Porque hizo una escuela para personas mayores.
<input type="checkbox"/>	Porque enseñaba a los niños cosas que él sabía.
<input type="checkbox"/>	Porque hablaba con los perros.

7. ¿Qué hace Tomás con el libro que lleva a casa? ¿Para qué?

8. En el texto aparecen algunas frases con un guión delante. ¿Por qué están escritas así?

	Porque son las ideas principales.
	Porque son diálogos entre los personajes.
	Porque son las primeras palabras que aprendió Tomás.
	Porque son parte de un poema.

9. ¿Cómo se preparó Tomás el primer día para ir a la escuela? Señala las respuestas correctas.

	Se aseó.
	Llamó por teléfono a un taxista.
	Se preparó un bocadillo para llevárselo.
	Llenó una mochila de libros.

10. a) ¿Te parece que el título de la lectura es adecuado? ¿Por qué?

b) La mujer de Tomás cambia de opinión del principio al final del texto. ¿En que cambia de opinión?

11. Escribe dos frases que se repitan en la lectura.

12. ¿Quién cuenta la historia?

	La maestra y los niños.
	Un narrador.
	La mujer de Tomás.
	El hermano de Tomás.

13. ¿Te parece posible que la situación que describe la historia pudiera suceder en la realidad? Explícalo.

EL CUIDADO DE CACHORROS DE PERROS GUÍA

(Janice Marriott) (*)



